

28 MUSIKA TALDE 'EKINEZ' JAIALDIAN ASTEBURUAN

Bigarren aldia izango da; oraingoan, Bergarako Labegaraletan.

Bi gune izango dira egubakoitzean eta zapatuan / 34



Jaialdiaren gunea izango den Labegaraletako kiroldegia, eguaztenean; eta parte hartuko duten talde batzuk. ANDONI GOITI ETA GOIENA

Lanbide Heziketa Duala euskaraz egiteko eskatu die Mankomunitateak enpresei / 4

2.400 plaka fotovoltaiko jartzen hasi da Ekiola, urrian energia sortzen eta banatzen hasteko / 5



CORPUSAK 2023 / 28

Agustin Aranzabal 'Gaztelu' omenduko dute Bergara Kirol Elkarteak eta Realak Agorrosinen / 20

SINADURAK



Debagoieneko artxiboen ondarea, herritarren eskura

Mikel Ander ez ikertzaile doktoareari elkarriketa

Hemen
garbiketak
Ura bezain garbia



T.- 943 71 48 45





Zenbait boluntario Bergarako Elikagai Bankuan. GOIENA

Hitzetatik Ekintzetara 'klik' egiteko jarduerekin

Arantzazulab-en eta Kutxa Fundazioaren egitasmoa da Hitzetatik Ekintzetara, eta herritarrak Agenda 2030ean inplikatzeko zenbait ekintza antolatu dituzte; tartean, Bergaran. Proiektuaren lehen edizioa da eta goserik eza du ardatz

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASTE
Arantzazulab-en eta Kutxa Fundazioaren Hitzetatik Ekintzetara egitasmoak herritarrak Agenda 2030ean inplikatzeko du helburu. Kutxa Fundazioko ordezkari Amaia Otazok aditzera eman duenez, askotan administrazioa edo beste eragile batzuk ibiltzen dira helburu horiek lortzen, eta horregatik bistaratu nahi dute

herritar orok duela kausa horiek guztiekiko ekarpena egiteko modua. Goserik eza da proiektuaren ardatza lehen edizio honetan.

Kausaren parte izateko, *klik* jarduerak antolatu dituzte, hirugarren sektore ekosozialeko 23 eragilerekin elkarlanean. Tartean daude, besteak beste, Elikagaien Bankua, Jatorkin eta Basque Culinary Center.

Otazoren hitzetan: "Gure ekarpena egin nahi dugunean ez dakigu nondik edo nora jo, eta programaren baitan jaso ditugu klikak, herritarrek erraz, elkarrekin eta gozamenetik ekarpenak egin ditzaten".

Debagoieneko ekintzak

Jarduera horietako bat da Bergarako Elikagai Bankuan egu-

nero izaten duten janari-sorten prestaketa egitea; edozein unetan har dezakete parte boluntarioek. Bergarako Elikagai Bankuko Joxe Mari Beitiak azaldu du eguneroko lan hori: "Egune-ro batzen ditugu produktu freskoak dendetan, eta horien sailkapena eta aukeraketa egiten dugu. Horiek egunean bertan banatzen dizkiegu familia zaurgarriari". Beitiak dei egin die herritarrei Bergarako Elikagai Bankura bertaratu eta egiten dutena ikus dezaten: "Beti falta dira boluntarioak. Horregatik, jendea etortzera animatu nahi dut, ikus dezan zer egiten dugun, eta lagundu dezan".

Halaber, lehen ekintzetako bat Arrasaten eta Donostian egin zuten. Gozoak banatu zituzten, "aisiak momentu gozoekin badielako zerikusia", baina gozoen barruan goseari buruzko mezu adierazleak bat zegoen. "Lehen klika izan zen informazioa zabaltzea kaleetan eta jendeak jakitea benetan zein den egoera, eta, kasu honetan, gu garela ekarpena egitearen %50en erantzule", dio Otazok. Gipuzkoan, adibidez, 22.100 lagunek jotzen dute Elikagai Bankura, eta 2021ean hiru milioi kilo janari banatu zirela azpimarratu du ordezkariak.

Bestalde, norbanakoek soilik ez, denda txikiek ere egin dezakete euren ekarpena: "Janari bilketak saltoki handietan egiten dira, baina oraingoan, Gipuzkoako Merkatarri Federazioaren bidez, gonbita egiten zaie saltoki txikiei pare hartzeko; hau da, haiek izateko janari bilketaren puntu".

'Klik' egiteko urratsak

Gipuzkoan adin tarte ezberdinetarako ekintzak osatu dituzte

eta egitaraua kontsultatu daiteke kutxa.eus/hitzetatik-ekintzetara webgunean. Oiartzungo Elikagai Bankuaren egoitzan egiten duten elikagai bilketa handietako produktuak sailkatzeko har dezakete parte taldeek, besteak beste, ekainaren 16ra bitarte. Izena eman behar da egitasmoaren atarian. Zenbait ikastetxetan, berriz, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetakoa ikasleek elikagai xahuketaren gaineko lanketa egin dute.

Jatorkin Donostian dagoen jangela soziala da, eta Europa mailan egin izan den esperientzia bat probatuko dute beste ekintza batean: ekainaren 12tik 16ra jatetxe bezala zabalduko dute jangela soziala, eta norberak "nahi duena edo ahal duena" ordaindu beharko du. Otazoren esanetan, asmoa da espazio inklusibo batean denen artean ordaintzea denen bazkaria: "Donostiakoa da lehena, baina Debagoienean ere ireki daiteke beste bat".

Kontzientziazioaren bidean

"Egitasmoak sinesten du *klik* egin behar dugula", dio Otazok. Adierazi duenez, gertatzen da kausa batekiko zerbait egin nahi izan eta oztopoak izatea, hala nola ez jakitea non eta nola, segurtasunik eza edo bakarrik ez egiteko nahia. Otazok, ordea, argi dauka: "Ekarpena egiteak on egiten digu eta on egiten dio gizarteari. Hortik dator ekintzarako deia".

BERGARAKO ELIKAGAI BANKUAK HERRITARREI ESKATU DIE JANARI-SORTEN PRESTAKETA EGITEKO

Elgoibarko Auzoko Jaian izango dira Debagoieneko taldeak

100 lagunetik gora joango dira Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Oñatitik ikasturteari amaiera ematera

I.A.A. ARRASTATE

Auzoko egitasmoa duten herri guztietako partaideak Elgoibarren elkartuko dira domekan, Euskaltzaleen Topaguneak sustatutako Auzoko Jaia ospatzeko. Euskal Herrian bederatzi herri-

tan daude taldeak eta horietako lau dira Arrasate, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzakoak. Denera, 100 lagunetik gora joango dira Debagoienetik.

Jai giroan egiten den ospakizuna dela azaldu du Arrasateko

Auzoko egitasmoko dinamizatzailerak Jasone Giraldek, eta jende berria ezagutzeko aukera dagoela. Hortaz, aurtengoa ere ez da gutxiago izango, egitarau oparoa osatu baitute herrialde askotariko musika, dantza eta gastronomia uztartuta –baita hemengoak ere–; betiere, euskararen bueltan.

Giraldek nabarmendu duenez, Auzokoko partaideek –auzokideak– euskarara hurbiltzea eta kultura partekatuta nahi dute. Horretarako, ordea, beharrezkoak

dituzte euskal hiztunak –auzotarrak–: "Zelanbait, hori da Auzokoren funtsa. Euskal hiztunak bidelagun izatea prozesu horretan, askotan zaila da eta. Nola bait, euskara bera kohesiorako hizkuntza da. Auzokoren bueltan hori bereizten dugu, elkar eza gutza, elkar aitortza eta euskara kohesio hizkuntza dela erakustea herritarrei".

Auzokide nahiz auzotarrei zuzendutako festa da, baina Giraldek aitortu du auzotarren profila faltan igartzen dutela.

"Urtean zehar antolatzen ditugun saioetan euskal hiztunak faltan igartzen ditugu", dio. Horregatik, dei egin die euskal hiztunei Auzoko egitasmora batzeko eta euskarara hurbildu nahi duten horiek bidelagun izateko. Ikasturte honetan 35 jatorritako 226 lagun elkartu dira Auzokon, 14 taldetan banatuta.

2014an egin zen lehen auzoko jaia, Bergaran, eta, orduetik, Eskoriatzan, Oñatin, Antzuolan, Aretxabaletan eta Arrasaten (iaz) egin dituzte, besteak beste.

Saguzarren gida kaleratu du Naturtzaindiak

Euskal Herriko lehen saguzar gida da eta 27 espezieri buruzko xehetasunak eta ilustrazioak daude jasota, "modu praktiko eta motzean"; formatu digitalean eta fisikoa dago eskuragarri, elkartearen webgunean eta ibarreko zenbait gunetan

I.A.A. ARRASATE

Naturtzaindia elkarteak *Euskal Herriko saguzarren gida* sortu du, euskaraz, eta eguaztenean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Arrasaten, Kulturaten. Euskal Herrian egindako lehen saguzar gida da. 27 espezie daude jasota liburuxkan, ilustrazioekin eta bakoitzaren ezaugarri esanguratsuenekin. Elkarteko kide Naiara Corcuera adierazi du espezie bakoitzaren informazioa jaso dutela modu praktiko eta motzean: "Herritarrentzat ere erabilerraza da, eta bisuala. Informazio orokorra eta praktikoa jaso dugu. Zer egin dezakegun saguzarra topatuz gero edo gure etxeko teilatupean badaude, besteak beste. Jendeak egiten dizkigun galderen erantzunak daude".

2011 ezker lanean

Saguzarren gaia aurrez ere landua zuten: "2011n sortu zen Naturtzaindia, Bergaran, na-



Naturtzaindiako kideak gidaren aurkezpenean, eguaztenean, Kulturaten. T. M.

turaren aldeko proiektua bultzatzeko helburuarekin. Orduan hasi zen talde bat sortzen saguzarren ikerketa sustatzeko, eta gero, azken urteetan dibulgatorako ekintzak joan gara osatzen". Duela pare bat urte,

saguzarrei buruzko *Saguzarrak, gure bizilagunik onenak* ikus-entzunezkoa sortu zuten, baita erakusketa bat ere: "Faltan igartzen genuen gida bat, jendeari ikusarazteko saguzarren artean ze aniztasun dagoen".

Saguzarren gauak ere antolatu ohi dituzte, eta "arrakastatsuak" direla aitortu du, jende asko batzen baita: "Badago nahia egiten dugun hori ezagutzeko". Adierazi duenez, aurten bizpahiru saio dituzte soilik. "Gertatzen zaigu agenda betetzen dugula horrelako gauekin, arrakasta izaten baitute, baina gero, ikertzeko denbora gutxi geratzen zaigu. Ikertzeko denbora gutxi geratzen zaigu eta iraila izaten da garai ona horretarako. Datuan momentu gutxitan jaso daitezke". Datorren irteera uztailearen 6an egingo dute, Bergarako Laboratoriumem eta herrian zehar, baina dagoeneko sarrera guztiak agortuta daude.

Gida lortzeko gunek

Liburuxka formatu fisikoa eta digitalean dago eskuragarri eta Debagoiengan honako puntu hauetan eskuratu daiteke: Arrasaten Besaide Mendizale Elkartearen eta Ereindajanen, Bergaran Laboratorium Museoan, Aramaion liburutegian eta Arbel kooperatiban eta Oñatin Natur Eskolan. Doakoa da, baina borondatezko ekarpena egin daiteke. Naturtzaindia elkartetik aurreratu dute jasotzen diren ekarpen ekonomikoek proiektuaren inprenta-gastuei aurre egiteaz gain, ondare naturalaren kontserbaziora bideratutako beste ekimen batzuei lagun diezaieketela. Bestalde, formatu digitala Naturtzaindiaren webgunean dago.

Langabeziak behera egin du Debagoiengan maiatzean

Apirilean baino hemeretzi langabe gutxiago zeuden; Hego Euskal Herrian, berriz, 1.558 gutxiago

I.A.A. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Lan Behategiaren maiatzeko langabezia datuen arabera, Debagoiengan 2.263 pertsona ziren langabeak eta langabezia tasa %7,37koa zen. Apirilko datuekin alderatuta, hemeretzi langabe gutxiago zeuden. Orokorrean, langabeziak behera egin du: Bergaran hamazortzi langabe gutxiago zenbatu ziren, Antzuolan lau gutxiago, Eskoriatzan hiru gutxiago eta Arrasaten bi gutxiago. Elgetan ez zen aldaketarik egon, eta, apirilean bezala, bost langabe zeuden maiatzean ere.

Era berean, Aretxabaletan eta Oñatin gora egin du langabeen kopuruak eta bost eta hiru lagun gehiago zeuden lan barik, hurrenez hurren. Langabezia tasari begiratuz gero, Arrasatek ia %10 zuen -ehunekorik handiena- eta Leintz Gatzaga eta Aramaiok, aldiz, bost langabe baino gutxiago zituzten.

Eskerrik asko gertukoaren alde egitearren



GOIENA ALDIZKARIA

35.000
irakurle astero



GOIENA.EUS

13.000
erabiltzaile egunero



GOIENA TELEBISTA

7.000
ikus-entzule egunero



goiena
Zu hemen zaude.

Hasi dituzte Leintz Bailarako Ekiolaren obrak

Lanak irailean amaitzea aurreikusten dute, eta urrian energia sortzen eta banatzen hasteko asmoa dute; hilaren 21ean kooperatibak batzar orokorra egingo du eta han emango dituzte orain arteko datuak, 2022ko balantzea eta 2023ko erronkak

I.A.A. ARRASATE

Maiatzaren 1ean hasi zituzten Leintz Bailarako Ekiolako eguzki parkea egiteko lanak. Dena ondo bidean, irailean amaitzean aurreikusten dute, eta urrian energia sortzen eta banatzen hastea da asmoa. Arrasaten, Udalara bidean, Santa Ana hotelaren pareko 10.000 metro karratuko lursailean jarriko dituzte 2.400 plaka fotovoltaiko inguru. Aurrekontua 1.700.000 eurokoa da eta sorrera horretan bi ekarpen "esanguratsu" daude: alde batetik, Fagor Taldeak, 335.400 euro; eta, bestetik, Europatik jasotako Next Generation funtsak, 644.000 euro.



Arizmendiarieta, Iturbe, Martinez, Sancho eta Iturbe, partzelan, eguaztanean. I.A.A.

Eguazten goizean partzelan izan ziren Ekiolako Errektore Kontseiluko kide Iñaki Aranburu, Maite Iturbe, Carlos Martinez eta Jesus Maria Arizmendiarrieta eta obra zuzendaritza daraman Ekiproject enpresako ordezkari Esther Sancho.

Urritik aurrera martxan

Sancho aurreratu zuenez, orain arte obra zibila egin dute; hau da, lursaila hesiarekin itxi eta kanalizazioak egin dituzte, besteak beste. Orain, transformazio gunea ari dira eraikitzen, eta, aurrez, geoteknia probak egin dituzte: "Geoteknia-probak egin ditugu luraren erresistentzia egiaztatzeko. Behin emaitzak jasota, orain enkargatu ditzakegu panelen euskarri izango diren egiturak. Orain, fase horretan gaude". Alabaina, aipatu du orografia dela eta zenbait zailtasun izan dituztela.

2x1 metroko neurria dute panelek eta urtean 1,35 GWh lortzeko gaitasuna dute, gutxi gorabehera. Errektore Kontseiluko ordezkariak adierazi dute dagoeneko jaso dituztela panelak, baina horiek jartzeko egitura

iristea falta dela. Horren harira, Sancho adierazi du egituraren eskaera bost aste barru jasotzea aurreikusten dutela: "Espero dugu uztaile hasieran kokatzea euskarria eta panelak uztaile erdi-amaieran jartzea".

600 bazkiderendako

Eguzki parkeak 600 bazkide inguru asetzeko gaitasuna izango du. Kooperatibako lehendakari Iñaki Aranburuk jakinarazi du 220 familia daudela izena emanda, baina helburua kopurua handitzea dela. "600 bazkiderendako gaitasuna du, baina, nolabait, helburua dira 450 familia-erabiltzaile. Besteak izango dira erakundeak", dio.

Oraindik badago bazkide egiteko aukera, eta horretarako edo informazioa nahi duenarendako zabalik egongo da Arrasateko BAZ bulegoa: "Gura duenak faktura eman dezake eta egingo dizkiogu kalkuluak eta adieraziko diogu ze aurreratu dezakeen. Datorren astean arratsalde egongo dira, eta hilaren 19tik 21era goizez. Era berean, www.ekiola.eus atarian ere eskuratu daiteke informazioa.

Erabakitze eskubidearen alde lanean duela hamar urtetik

Atzo ospatu zuen Gure Esku ekimenak 10. urteurrena, Portugaleten, eta urte horien balorazioa egin dute

I.A.A. ARRASATE

Gure Eskuk 10 urte bete zituen atzo, eta ekimeneko bozeramaile Josu Etxaburuk hamar urte hauetako balorazioa egin du. Dioenez, argi izan behar da erabakitze eskubidea "gertu" dagoela. Herrietan ere taldeak sortu zituzten, eta horiei dago kienez denetarik dagoela dio: "Herri batzuetan ahultzen joan dira, baina Debagoiengan, esaterako, taldeari eutsi zaio. Bai-

lara aktiboa dela esango nuke, eta, hain zuzen, eskerrak eman beharrean nago".

Luzerako erronka erabakitze eskubidea gauzatzen den egun hori bada ere, erronka nagusia hori lortzeko egin beharreko bidea dela dio: "Erabakitze prozesu horretan urratsak egiten joatea, gu ere ahaldunduta harrrapa gaitzan". Datozen ekintzak uztailearen 1etik 3ra egingo dituzte, Tourra dela eta.



Gure Eskuko zenbait kide Arrasaten. TXOMIN MADINA



DEBAGOIENEN GREMIOAK



ARROZTEGIAK

AZKARATE ARROZTEGIA
BERGARA / Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE / Meatzerreka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA
ARRASATE
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

URKO MANTENIMIENTO SL
ARETXABALETA
Basabe Industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LOREZAINITZA
MAKAI KOOP. ELKARTEA
ARETXABALETA
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 - 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

"Demokrazian negoziatu egin behar izaten da"

KOLDO MARTINEZ GEROA BAIEN IRUÑEKO ALKATEGAIA

Espainiako senataria izan da azken legealdian, Nafarroako Parlamentutik; hauteskundeetan Geroa Bairen Iruñeko alkategaia izan zen eta bi zinegotzi lortu zituen

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan emaitzek Nafarroan eta Iruñean utzi duten mapa politiko berriaz dihardu Koldo Martinezek (Eskoriatza, 1953). **Iruñean nolako egoera utzi dute hauteskundeek?**

Iruñean UPN izan da, Nafarroako eskuina, boto gehien lortu duen taldea; ondoren geratu dira EH Bildu, alderdi sozialista eta Geroa Bai. Horrek esan nahi du, boto batzuk gora edo behera, egoera 2019koaren oso antzerakoa dela. Irabazlea eskuina izan da, baina talde aurrerakoiek gehiengo daukagu. Iruñeko %55ek talde aurrerakoiei eman diete euren botoa.

Lau talde aurrerakoiek ados jarri nahian zabilzate. Zein puntutan daude negoziatioak?

Badakizu politikan momentu batetik bestera dena alda daitekeela, baina, gaur-gaurkoz, gertatzen dena da lau talde aurrerakoien artean adostasunik ez dugula lortu, eta okerre dena: ez gara batu ere egin. PSNk esaten duena esanda eta EH Bilduk esaten duena esanda, egoera da blokeoan gaudela. Blokeo horri irtenbiderik ematen ez baldin badiogu, UPN izango dugu Iruñeko alkatez.

Zuk zeuk adierazi duzu EH Bilduri babesa emango diozula.

Bai, noski. Kanpainan zehar bakoitzak berea esan du: guk argi eta garbi esan genuen gure botoa talde aurrerakoi bati emango geniola. Zer gertatzen da? Guk Asironi emango diogun botoa ez dela nahikoa Iruñean alkate progresista bat izateko. Geroa Bairen ustez eta Iruñeko herritar aurrerakoien ustez, hori onartezina da.

Titular askotara ekarri da kontsentsuko hautagaitza lortzeko zeure burua aurkezteko prest zaudela. Posible ikusten duzu hori?

Nik ez dut hori esan. Noski, irtenbide posible bat bilatu behar



Koldo Martinez eskoriatzarra. GEROA BAI

dugu, bai edo bai. Zelako aurregiarekin begiratu behar diegu Iruñeko herritarrei ez baldin bagara gai gure artean benetako irtenbide posible bat lortzeko? **UPNk alkatez lortzen badu, nortzuk izango dira erantzuleak?**

"ESKUINAK IRABAZI DU, BAINA GEHIENGO AURRERAKOIAREKIN"

"DEMOKRAZIA DA BOTOAK ERABILTZEAK HERRIAREN ALDE"

"UDALAREN ATEAK ZABALTZEAK LITZATEKE LEHEN ERRONKA"



Lau indar aurrerakoiek, noski. Gauza bat da boto gehien lortzea; hori oso pozgarria izango da. Baina boto asko izateak ez dizkizu eskubide guztiak ematen. Demokrazia ez da hauteskundeak konbokatzea eta boto gehien lortzea bakarrik; demokrazia da botoak erabiltzea herriaren interesen arabera, eta herriaren ongizatearen alde. Horretarako, askotan, negoziatu egin behar da. Nik uste dut demokraziak alderdi politikoei bi bertute exijitzen dizkigula: alde batetik, koherentzia, esaten dugunarekin bat etortzea eta esan duguna egitea; eta beste bertutea da eskuzabaltasuna. Eskuzabaltasun hori erakutsi behar da zure botoak ez direnean nahikoa gehiengoaren nahiak lortzeko. Nik bi zinegotzi ditut; zinegotzi gehiago dituztenek erantzukizun askoz handiagoa dute.

Zeintzuk dira Iruñearen erronkak?

Kanpainan lau taldeok aurkeztu dugun programa oso antzerakoa izan da. Azken lau urteetan UPNk gidatutako Udala guztiz itxita egon da herri eta auzo mugimenduei, kultur elkarteei... Hori ezin du onartu talde progresista batek. Udalaren ateak zabaltzea izango da lehen erronka. Bigarrena, aldiz, kohesioa. Badira Iruñean hainbat auzo oso modu ezberdinean tratatuak izan direnak. 2023an ezin da horrelako diskriminaziorik onartu. Beste alderdi

bat euskarara da: %40k euskararen alde gauden alderdiei eman diete botoa.

Nafarroako Parlamentuan, aldiz, Geroa Baik izango du presidentetza. Sozialistek dena nahi zuten; Gobernuko presidentetza eta baita parlamentuko lehendakaritza ere. Guk bi parlamentari galdu ditugu, baina, hala ere, guztiz beharrezkoak gara Gobernu aurrerakoia egiteko. Exijitzen dugu gutxienez azken legealdian izan duguna: Parlamentuko presidentea eta Gobernuan egotea.

ULMA Inversiones S. Coop. - Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA

Eguna: 2023ko ekainaren 16a

Ordua: 11:00etan lehen deialdia eta 11:30ean bigarrena

Lekua: Arantzazulab-Oteiza aretoa

GAI ZERRENDIA

1. AURREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA ETA BI BAZKIDE IZENDATZEAK BATZAR BONEITAKO AKTA ONARTZEKO
2. 2022KO GESTIO SOZIALA AZTERTZEAK ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEAK, ETA, KASUAN KASU, 2023KO GESTIO PLANA ETA AURRIKONTUA BERRITIA
3. 2022KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEAK ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEAK
4. AUDITOREA IZENDATZEAK EDO BERRAUTATZEAK
5. KAPITALERA EGINDAKO EKARPENAK ORDAINTZEKO PROPOSAMENA
6. 2022KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEKO PROPOSAMENA
7. HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENERAKO ETA INTERES PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUETARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEAK (IPDK)
8. MENPEKO FINANTZA EKARPENEN JAULKIPENA
9. KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA IZENDATZEAK
10. KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEAK BERRITZEAK
11. ZAINTZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEAK
12. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA
13. AHALMENAK ESKUORDETZEAK
14. GALDE ISKURIAK

OHARRAK: Batzari gogoratzen zaio Kooperatibaren egoera eta inbentarioa onartzeri buruzko artikulua, kateak eta txostenak, emaitzak aplikazioak proposamenak eta lehenengo lehenengo inbentarioa egiteko gaitasuna. Batzar Nagusiaren deialdiaren erantzunaren arabera aldatu izan daitezke.

KONTSEILU ERREKTOREA
Oñati, 2023ko maiatzaren 26a

Urteko batzar nagusia egin du Fagor Taldeak

Joan den astean egindako batzar nagusian bi helburu nagusi finkatu zituzten: erronkei aurre hartzeko ahalegina egitea eta komunitatean ekarpenak egitea

Mikel Zumalde Etxabe ARRASATE
Fagor Taldeak batzar nagusia egin berri du Garaia gunean. Gaien artean, nabarmentzekoak: erronkei aurre hartzeko ahalegina egitea eta komunitatearen alde lanean jarraitzea. Horrez gain, Fagor Taldeak adierazi dute 2022an 1.819 milioi euroko salmentak izan dituztela. Batzarraren berrikuntzaz eta lehiakortasunaz egin zuten berba, eta Fagor Taldeak Hirekin berrikuntza eta ekintzaitza zentroari eginiko ekarpenean jarri zuten arreta. Gobernantza eredu demokratikoa garatzen segitzeko konpromisoa ere izan zuten ardatz nagusi. Gainera, talentua erakartzeko helburuaren garrantzia berretsi zuen Fagor



Alustiza, batzar nagusian. FAGOR

Taldeak. Eta energia berriztagarrietan buru-belarri lanean jarraitzen dutela nabarmendu nahi izan zuten.

Ribinerf enpresa

Ribinerf enpresaren kapital sozialean sartu da Fagor Arrasate. Akzioen %70 eskuratu du, eta

horrekin helburu du "fabrikazio-prozesuen automatizazioarekin lotutako gaitasun teknologikoak indartzea". Erosketa horrek Fagor Arrasateren esku jartzen du merkaturuan punta-puntakoa den *picking* eta *racking* kalitate kontrolen automatizazio prozesuetarako teknologia.

Onnera Group-ek lantegi berria zabalduko du Oñatin

Planta berriko eraikuntza-obrak hasi dira dagoeneko; 17 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egingo dute

Mikel Zumalde Etxabe OÑATI

Lantegi berria zabalduko du Onnera Group-ek Oñatiko lurretan. Enpresaren aburuz, ekipamendu industrialen fabrikazioan erreferente izateko oinarriak jartzeko eta enpresaren posizionamendua indartzeko balioko du lantegi berriak. Iragarri dutenez, nazioarteko merkaturuan duen lehiakortasuna eta posizionamendua indartzeko balioko du. Inbertsioa 17 milioi euro baino gehiagokoa izango da, eta ingurumenaren ikuspegitik proiektua "berritzailea" izango dela adierazi du Mondragon taldeko kooperatibak.

Obrak hasita daude

Planta berria eraikitzeko obrak hasi dituzte dagoeneko, eta, behin amaituta, egungo garbigailu industrialen ekoizpen gaitasuna handitzen lagunduko du. Lan-

toki berri horrek enplegua sortzen lagunduko duela nabarmendu dute.

Eduardo Calvok, Taldeko zuzendari nagusiak, "positibotzat" jo du iazko urtea, eskertu egin du taldeko pertsona guztiak egindako "ahalegina" merkatuetan ziurgabetasuna nagusi den ikasturte honetan, eta adierazi du determinazioz jokatu duela taldearen etorkizuneko erronkak lortzeko asmoz.

Zazpi lantegi

Euskal Herriko lantegiaz gain, Onnera Groupek zazpi lantegi ditu nazioartean; besteak beste, Frantzia, Polonia eta Mexikon. Guztira, 2.500 langile dituzte. Zazpi marka biltzen ditu -Fagor Professional, Asber, Edenox, Efficold, Danube, Domus eta Primer-, hainbat merkaturan liderrak direnak.

**GARAJE LIBREAK
SALGAI**



Neinor HOMES

SAN ANDRES HOMES
• ARRASATE •

EZOHIKOA

ZURE - ZUREA

Bizimodua aldatzeko etxebizitza
estilo berri bat iritsi da

**GUSTATZEN ZAIZUNA
ALDATU GABE**

Bizikleta-aparkalekuak • Jolasguneak
Gourmet aretoa • Gimnasioa

900 11 00 22 • neinorhomes.com



ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI ZUBELDIA

Gu ere kolonizatzaile ote?

Aurreko astean, Emakume Txokoak antolatuta, *Petare Miren Egigurenen puskak* liburuaren aurkezpena egin zen Arrasaten. 1947an Bidanian jaio eta 49 urtez –horietatik 46 Petare auzoan– Venezuelan kooperante egin dituen haren bizitzaren pasarteak dakartzatza Leire Ibarguenen liburuak.

Ekimen itzeleko eta gauza gutxiarekin proiektu handiak aurrera atera dituen emakume aparta. Berehala ohartu omen zen auzoetako bizimodua hobetzeko modu bakarra bertakoei entzun, antolatu eta elkarlanean ekitea zela; horrela, bideak asfaltatu, etxeetara ura eraman, haurtzaindegi eta eskola sortu... zituzten. Horretaz gain, emakume talde bat antolatu eta hainbat inizatiba martxan jarri zituzten: okindegia, elikagai kooperatiba, joskintza tailerra, medikuntza alternatiboa, alfabetatze ikastaroak...

Aurkezpenean, euskaldunek Venezuelan eta halako herri kolonizatuetan izan duten –eta oraindik duten– papera ere aipatu zen. Kontraesan bat agertu zen orduan: eskolan euskaraz egiteagatik gaztelania inposatzeko zigortua izan zen, eta, ondoren, Venezuelan, Misiorearen barnean, gaztelaniaz

GERRA ETA ERREPRESIO BIDEZKO MENPERATZEA IZAN ZEN, EUSKAL HERRIAN MODUAN

burura: Espainiak Amerika ebanjelizatu zuela basatiak zibilizatu. Euskaldunak ere baziren tartean, euren nagusien interesen defentsan: Gaztelako koroa, ontzien jabeak, eliza katolikoa... Noski, konkistatzailearen kontakizuna da hori; geroztik, gerra eta errepresio bidezko menperatzea izan zela ikasi dugu, Euskal Herrian moduan.

Ordukoa ez da gure errua, baina bai gertakari haiei orain ematen diegun tratamendua: kontesturik gabe ohoratuz, plaza eta kalei militar izenak emanez, esploratzaile, humanista edo enpresari gisa tratatuz. Arrasaten ere badira Elkano kalea, Okendo kalea eta Garro Jenerala kalea...

Justiziaz eta berdintasunez jokatu nahi badugu, ikuspegi kritikoa landu beharra daukagu.


idazten eta irakurtzen irakatsi zien espainieraz tutik ere ez zekiten hango umeei.

Kolonizatzaileen hizkuntza ezartzen lagunduz.

Euskaldunak kolonizatzaileak ote diren galderaren aurrean, umetako eskolako azalpena datorrit

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



GUTUNAK

Tourra 2023: ikurrina eta txapela

BEÑI AGIRRE OIARTZABAL, RAFA SANTXEZ MUXIKA, IÑAKI IDIGORAS IGARTUA ETA BESTE 19 SINADURA
DEBAGOIENA

Ikurrina ez da Euskadiko bandera bakarrik, Nafarroako erresumarena Nafarroa Foralarena bakarrik ez den bezala. Ikurrina Luis Aranek asmatutakoa bada ere, ez da aranatarrena, ezta haren jarraitzaileena bakarrik ere. Herri batek beretzat hartzen duen ikurra herritarrena bihurtzen da, nazioarena. 1894an lehen aldiz marraztua izan zenetik ikurrinak urte luzeetan jazarpen politiko ankerra jasan izan du

Espainian, eta, aldiz, baimendua izan da Frantziako Errepublikan. Beharbada, horregatik ere, ikurrina bada euskal nafar guztion bandera.

Nafarroako banderak, katerik gabekoak, erresumaren antzinatasunean du sorrera. Euskarak eta Euskal Herriak bezala, "... Nafarroa garayan, Nafarroa behean, Çuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan". Beraz, euskaldun guztion ikurra da nafar bandera, euskal erresuma burujabearena, euskal nafar estatua.

Aurten, Tourrak Euskal Herriko/Nafarroako Bilbo hiritik abiatuko dela eta, hainbat agintaririk, antolatzailek

eta mugimendu herritarrek Bilbo eta Baiona arteko errepideak ikurrinez eta txapelez betetzea eskatu digute: "Herri bakar bat eta batua irudikatu dezagun munduaren aurrean". Idatzi hau sinatzen dugunok bat gatoz asmo horrekin, baina, aldi berean, Tourreko eta gainerako errepide, kale, herri eta auzo guztietan euskal nafar bi banderak –ikurrina eta bandera nafarra– jartzea eskatu nahi dizuegu: euskal nafar herritarren atxikimendua duen ikurrina eta Nafarroako euskal estatu burujabearen bandera. Horietaz gain, txapela, bisera, kapela edo boneta ere jantzi ditzala hala nahi duenak.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Eskerrik asko, Oñati, 'Migrazioa guztion eskubidea' kanpaina posible egiteagatik!**LEIRE ETXEBERRIA**

HOTZ OÑATIREN IZENEAN OÑATI

Hotz Oñatik *Migrazioa guztion eskubidea* sentsibilizazio kanpaina egin zuen maiatzean. Kanpainari hasiera emateko, *Kantu eta kolorez migrazioaren alde* ekintza artistiko kulturala ospatu genuen apirilaren 29an, festa giroan, Oñatiko plazan. Eta maiatzean astero emanaldi edo hitzaldi bat izan genuen kultur etxean.

Kanpaina hori posible egin duzuen guztioi mila-mila esker!
-Artistak: Roberto Zabarte, Antton Txintxurreta, Iñigo Ugarte eta Javi Erostarbe.
-Oñatiko ikastetxeak.
-Mirari Sagarzazu eta DBHko lehenengo mailako ikasleak.
-Pintura tailerreko ume eta gaztetxoak eta tailerreko irakasle Mayra.
-Musikariak: Aiert Alberdi eta Koki.
-Olatu solidarioan parte hartu zenuten guztiak.
-Muntaia: Pablo Miguel Esteban eta Jose Antonio Martinez Beretxinaga.

Emanaldi eta hitzaldietan hizlari ponente izan zaretenoi! Ekintzetara bertaratu zareten herritar guztioi! Eskerrik asko!

Eskerrik asko babesa eman diguten enpresa, denda eta erakundeei: Gertu, Cartonajes Arregui, Moyua aroztegia, Ulma Construcción, Pago-Uso elkarte, Txanda (Maibi eta Juanitosa), Txantxiku ikastola, Udala, Eltzia...

Euskara, agendetatik kanpo**EÑAUT MUXIKA OLASAGASTI**

AED-KO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN IZENEAN ARRASATE

Udal hauteskundeetarako kanpainaren aurretik, bilera erronda egin genuen Udalean ordezkariak zeukaten alderdi guztiekin. Hautetsi euskaldunak eskatzea eta hurrengo legegialdiari begira euskara arloan zituzten programa politikoez galdetzea ziren helburu nagusiak. Errondaren emaitza etsigarria izan zen, oro har. Alderdi batzuen aldetik –ez denak– euskararen aldeko berbak entzun genituen arren, gaiarekiko proiektu eta

zehaztasun falta nabaria izan zen, eta ondorio garbi batera iritsi ginen: euskara ez dago alderdi politikoen agendan.

Hauteskunde kanpainan zehar gure ustea berretsi besterik ez dugu egin: euskara arlorako proposamenak hutsaren hurrena izan dira alderdien eskuko programetan eta ekitaldietan.

Hurrengo udalbatzaren osaketa ezagutzen dugu jadanik, eta horrek ere kezkatzen gaitu. Hautetsi batzuen euskara maila hain da baxua, ezen Udalak euskaraz lan egiteko eta funtzionatzeko oztopo garbia izan baitezake.

Udalak erraztasun guztiak ematen dizkie hautetsiei euskalduntzeko zein euskara maila hobetzeko, eta gaurdanik eskatzen diegu arduraz jokatzuz aukera horiek balia ditzatela. Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko gai ez den hautetsiak ezin du bere funtzio publikoa ondo bete.

Gainontzean, osatuko den Udal Gobernuari, edozein delarik, eta, oro har, talde politiko guztiei gonbidapena egiten diegu euskararen

aldeko politiketan jauzi bat ematera. Bide horretan AED beti izango dute elkarlanerako gertu.

Eskerrik asko!**ANJEL BERGARETXE**

URBALTZ ELKARTEKO ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ETA ANTOLAKETA TALDEAREN IZENEAN ARETXABALETA

Urbaltz elkartearen eta Montferri herriaren arteko elkartrukearen beste edizio bat egin genuen aurreko asteburuan. Balorazio ezin hobea egiten dugu, eta emaitzarekin oso pozik gaude.

Zalantzarik gabe, arrakasta horretan zerikusi handia izan du antolakuntzarako eratu den talde sendoak, baina garbi dugu ezin izango genukeela hori guztia aurrera eraman modu batean edo bestean jaso dugun laguntza barik. Lerro hauen bitartez, gure eskerrik beroena luzatzeaz gain, gure poz hau ondoan izan ditugun guztiekin partekatu nahi dugu.

Alde batetik, euren parte hartze zuzenarekin, taloak egiten, mahaiak jartzen eta kentzen, plaza garbiketana... lagundu diguten dozenaka adiskide daude. Zuek banan-

banan aipatzen ahalegindu ere ez gara egingo, horretarako larregi zarete-eta, baina guztiokin gogoratzen gara.

Bestalde, erosketak errazten edota tresna zein ontziak utzi dizkiguten komertzio eta elkarteak: Iosu eta Ion harategiak, Areder arrandegia, Taberna Barri eta Expres tabernak, Matikua eta San Miguel jatetxe ohiak eta Eguzki Alde eta Loramendi elkarteak, eta Kurtzebarri Eskola.

Egubakoitzeko afaria zein domekako ekintza batzuk posible egin dituzten herriko ekoizleak: Zaloña Aurrekoa, Etxezuri, Mitarte Garai, Mendibitzu eta Areantza Etxebarri baserrietako lagunak.

Hiru egunetan zehar euren lana eskaini diguten artistak: Iñaki San Miguel, Upeide, Eñaut Zubizarreta eta Larraitz Iparragirre, Ekain Martinez de Lizarduy eta Iñigo Iñurrategi.

Azkenik, eskerrak baita ere Aretxabaleako Udalarari eta hango langileei.

Guztioi mila esker! Aretxabaleta herri bizia eta solidarioa dela erakutsi dugu berriz ere.

Gora herria! Visca la terra!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

ttapIrakurri, ukitu,
ikus, entzun.DOAN
Euskarazko
aldizkari digitala
zure mugikorrean

ASTE HONETAN

Miren Narbaiza
'Mice'
Musikaria**"Bira honetan zalantzarik
ez dudala nabari dut"**



2019an egin zuten azkenengoz ibilgailu klasikoek topaketa. GOIENA

Arruena parkea, ibilgailu klasikoek erakusleihu

2019an egin zuten azkenengoz ibilgailu klasikoek topaketa, eta, lau urteko etenaren ostean, berreskuratu egingo dute etzi. Modu horretan, bosgarren edizioa izango du Goiena Classic Clubek antolatzen duen ekimenak; 09:30ean hasiko da izen-ematea

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Etzi, domeka, ibilgailu klasikoek topaketa egingo dute Arruena, eta, parte hartzeko, hainbat baldintza bete beharko dituzte ibilgailuek; nagusiki, bat. "Klasikoa izateko, legez, 30 urte izan behar dituzte, baina guk 25 urtetan mantendu dugu. Hala ere, kartelean jarri dugu onarpen-eskubidea mugatua izango dela, parkeko espazioagatik. Beraz, auto batzuk kanpoan geratu daitezke", azaldu du Kaiet Martinek, Goiena Classic Club elkartearen presidentea.

Izen-ematea doakoa da eta egunean bertan egingo dute, 09:30ean hasita. Izan ere, aurretik ez dute bazkaririk egingo eta ez dute parte-hartzaile kopurua aurreikusteko beharrik, aurreko urteetan moduan. Izena ematen duten lehen 100 parte-hartzaileei, gainera, Goiena Classic Clubeko kamiseta eta pegatina bana oparituiko diete.

Gero, 11:30ean, irteera bat egingo dute inguruko errepidee-

tan. "Asmoa da jendeak autoak martxan ikustea eta ez egotea goiz osoan gelditu, aparkatuta", adierazi du Martinek.

13:30ean, opariak zozkatuko dituzte parte-hartzaileen artean. "Hainbat babesle ditugu, eta haiek opari txiki batzuk ematen dizkigute. Auto klasikoek lotutako opariak izaten dira: pneumatikoak, urtebeteko segurua eta abar". Horren harira, babesleei eskerrak eman dizkie elkarreko presidentek: "Horiek gabe ezin dugu ezer egin. Halako ekintza bat egiteko dirua behar da, eta eskertzen dugu haiek ematen diguten laguntza".

Horrekin batera, *crawler* eta RC ibilgailuak, miniatuak, arropak, musika eta barra ere

IZENA EMATEN DUTEN LEHENENGO 100 PARTE-HARTZAILEEI KAMISETA BANA OPARITUKO DIETE

jarriko dituzte salgai, eta 11:00etik 14:00etara pedalekin funtzionatzen duten kart batzuk ere egingo dira. "Topaketa guztietan jartzen ditugu, umeendako entretenimendua egoteko".

Lau urteko etenaldia

2019an egin zuten azkenengoz topaketa. Martinek dioenez, pandemiak eragin du horretan, baina ez horrek bakarrik. "Halako ekintzak prestatzeak lan handia dauka atzetik eta geroz eta jende gutxiago dago horretarako prest. Bestalde, Udalaren partetik ere ez dugu jaso behar besteko laguntzarik". Egun, hamabost bazkide ditu Goiena Classic Club elkarteak, eta Udalarik presioa egiteko asmoz sortu zutela dio Martinek: "Auto klasikoek zergak jaitzi gura genituen, baina ez genuen lortu. Gasteizen, esaterako, auto klasikoek elkarreko bazkide bazara, zergaren %25 ordaintzen duzu, baina Arrasaten zergaren %100 ordaintzen dugu. Ez da onargarria".



SUDC

Danborradarako prest daude

Ekainaren 17an egingo duten haurren danborradako banderak aurkeztu dituzte dagoeneko. Hala, Elene Garciak eramango du Arrasateko bandera; Nicole Monterok, SUDCkoa; eta June Carrillok, ikurrina. Jenerala, berriz, Mikel Garcia izango da. Bestalde, bihar, zapatua, entsegu egingo dute Kulturoloko sarrerako aterpean, 10:30ean hasita.

80 urtetik gorakoei omenaldia egingo diete ekainaren 24an

Arrasaten erroldatuta dauden 80 urtetik gorakoei omenaldia egingo die Arrasateko Udalak ekainaren 24an, Etxaluze eraikinean. Parte hartu ahal izateko, 80 urteak beteta eduki beharko dira hilaren 24rako eta izena eman beharko da ekainaren 17a baino lehen, BAZen, 943 25 20 00 zenbakian edo www.arrasate.eus-en. 12:30ean hasiko dute ekitaldia, eta omenduko dituzten emakume eta gizon nagusiei lore sorta bana banatuko diete. Amaitzeko, Abaroako abesbatzak emanaldia egingo du, eta gero, luntxa egingo da. Izena ematerakoan eskuratutako agiria beharko da eraikinean sartzeko.

Udaixe programan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Arrasateko Udaleko gazte txokoei prest dute Udaixe programa, 12 eta 17 urte arteko gazte zuzendutako egitaraua, uda sasoiaren aisialdiaz gozatzen jarraitzeko. Ekainaren 27tik uztailaren 20ra hainbat ekintza egingo dituzte, eta ekainaren 18a baino lehen eman beharko da izena, gazte txokoetan edo zerbitzuetako sare sozialen bitartez.

Honako ekintza hauek egingo dituzte: izar behaketa Kurtzetxikin, sukaldaritza tailerra, Landa urtegiara irteera eta paintballa, kustomizazioa eta argazki saioa, Usakora eta Mutriuko igerileku naturalerako irteerak eta Gazte Konkis. Egitaraua osorik, Goiena.eus-en.

OHARRAK

Arizmendi Ikastolaren jaia gaur Biteri plazan
09:30ean hasita, ekintzaz beteriko egitaraua prestatu dute.

Musakolako kanpoko igerilekuak

Ekainaren 17an irekiko dituzte. Ur-parkeak zabalik daude jada.

Arrasate Herri Eskola

Danborrada egingo dute ekainaren 16an Bedoñaben eta Musakolan. Halaber, hilaren 19rako, *Got talent* prest dute.

Osasun karpeteri buruzko hitzaldia

Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatuta, ekainaren 20an egingo dute, Kulturateko areto nagusian, 17:30ean hasita.

Txosna Batzordeak prest du jaietarako egitaraua

Asteon eman dute sanjuanetarako prestatu dituzten ekintzen berri; zazpi eragilek osatzen dute Arrasateko Txosna Batzordea eta horietako bat arduratuko da pregoia egiteaz, Arrasateko Bilgune Feminista; ekainaren 23an izango da hori, 12:30ean

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Arrasateko zazpi eragilek dihardute lanean batzordean: Arrasateko Ernai, GKS, Askapena, Euskal Herrian Euskaraz, Ttak gazte taldea, Ikasle Abertzaleak eta Arrasateko Bilgune Feminista. Azken hori arduratuko da txupinazoa botatzeaz eta pregoia egiteaz. "Saiatzen gara urtero eragile desberdin bat izaten. Iaz, GKS eta bilgune feminista sartu ziren batzordera, eta erabaki genuen bi horietako bat izatea aurten", azaldu du Gorka Etxabek, batzordeko kideak.

Gaineratu du aurten asteburuan izanik nahiko jai motzak egokitu zaizkiela. "Hala, espero dugu San Juan eguna indartsuagoa izatea, zapatua delako, eta saiatu gara egun horretarako eskaintza alternatiboagoa osatzen, kontzertu eta alkohol kontsumotik haratago doana".

Era berean, erasoen aurkako protokoloa ere egongo da, edozein motatako erasoren bat gertatuz

gero martxan jarriko dutena. "Barran dagoen jendeak jakingo du nola aplikatu protokoloa, eta telefono-zenbaki bat ere egongo da erabilgarri eguneko 24 orduetan, eta hainbat tokitan ikusgai egongo da zenbaki hori", dio Etxabek.

Askotariko eskaintza

Kontzertuei dagokienez, J Martina, La Furia, Huntza, Assata, Kontralde, Larru Beltzak eta Youth United igoko dira oholtzara. Halaber, ekintza feminista, *Zeuk ein zeuk jan* bazkaria eta magia erakustaldia egongo dira, besteak beste (Egitaraua osorik, *Goiena.eus*-en).

Udalarena ere, ia prest

Udalak ere datozen egunetan emango du egitarau osoaren berri. Ekainaren 24an, esaterako, Chambaoren emanaldia izango da Monterronen, 23:15ean, eta ekainaren 26an Mikel Eren-txun izango da plazan, 20:00etan.



Hainbat gazte, txosnagunean, sanjuanei hasiera emateko zain, iaz. GOIENA

NIRE USTEZ



ANDER GARAY

Gora Arrasateko kirolariak!

Iritsi da 2022-2023ko kirol denboraldiaren amaiera, eta, horrekin batera, Arrasateko kirol sarien gala izango dugu ekainean.

Zortzi urte dira gala hori sortu zenetik. Kirol zinegotzi izendatu nindutenean hartutako lehen erabakietako bat izan zen.

Arrasatek 25 kirol elkarte baino gehiago dauzka eta 800dik gora kirolari eta boluntario asko ibiltzen dira urtean zehar Arrasateren izena herriz herri defendatzen. Uste dut garrantzitsua dela haiek errekonozimendu bat izatea urte amaieran, egindako lorpenengatik, baina baita egiten duten lan izugarriagatik ere.

Kirol elkarte, kirolari eta boluntariok egiten dute Arrasate, eta merezi dute arrasatearren errekonozimendua.

Beraz, hitz hauen bitartez arrasatearrak gonbidatzen ditut kirol saria eta ibilbidea saritzen duten hautagaiak bozkatzera, eta galan merezi duten errekonozimendua ematera.

Espero dezagun, azken zortzi urteetan bezala, datozen urteetan ere gala hori egiten jarraitzea, kirol munduak merezi du eta. Gora Arrasateko kirolariak!



Ekainak
9
ostirala

Ekainak
10
larunbata

GUZTIAREN 

BEZ^a*

oparituko dizugu

90€-tik gorako erosketetan.



EROSKI App-a lehen aldiz deskargatzen baduzu

5€** opari



Ekainaren 30era arte baino ez!

* EROSKI clubeko bazkide bazara, EROSKI Hipermarketuetan sustapenera atxikitako ataletan erositako produktuen BEZaren zenbatekoa sartuko dizugu EROSKI club biartelean. EROSKI club biartelean gehienez 250 € sartuko dira. Sustapenerik kanpo daude bitagintra, testu-liburuak, espeleñtira-paketeak, telefono-kargatzeak, E-pay aurreordainketa-biartelak, erabileratu digitala, entrega- eta instalazio-zerbitzuak eta zigilu biderko fidelizazio-sustapenetako produktuak. Kontsumatu gainerako baldintzak zure chiko dendan. Baita supermercado.eroski.eus itelagunean ere.

** Ekainaren 7tik 30era App-a lehen aldiz deskargatzen duten eta lehen aldiz izena ematen duten bezeroentzat. 5€40C erosketa-irupola App-a deskargatu denetik gehienez ere 7 eguneko epean egongo da esturagarri.



ARRASATE

 Musakola z/j ARRASATE,
 Tel.: 943 71 10 30

140 gimnastekin agurtuko dute kurtsoa

Bihar Uarkapen egingo den gimnasia eta aerobik erakustaldiarekin amaituko du urtea Arrasate Dragoi gimnasia taldeak. Kurtsoa agurtu arren, ekainaren 15 eta 18 bitartean Espainiako Txapelketan lehiatuko dira gimnasta arrasatearrak

Miren Arana Pagaldai ARRASATE

Bihar emango diote amaiera ikasturteari Arrasate Dragoi gimnasia taldeko kideek. Urteari agur esateko, gimnasta guztiek parte hartuko duten erakustaldia egingo dute, Uarkapen; 11:30ean hasiko da eta, gutxi gorabehera, ordu eta erdi iraundu du ikuskizunak.

Guztira, 140 haur eta gazte aritu dira ikasturte osoan gimnasia erritmikoko eta aerobikeko taldeetan, eta, haietatik mutil bakarra egon arren, "aurrerapauso" txiki bat dela adierazi du Arrasate Dragoiko gimnasia erritmikoko irakasle Edurne Elkorok: "Taldean mutilen presentzia izatea garrantzitsua da; horrela, neskatoek ikusten dute kirol hori mutilek ere praktikatzen dutela; egia da Espainia mailan geroz eta mutil gehiago daudela, baina gurean azkena egon zenetik urteak pasa dira".

Emaitzak, gutxieneoak

Lortutako emaitzetatik harago, urtero balorazio positiboa egiten saiatzen direla argitu du irakasleak; eta aurten "nabarmentzeko momentu asko" daudela gaineratu du. Arrasate Dragoi gimnasia taldeak "indartsu" jarraitzen duela erakutsi du, beste urte batez: "Inoiz baino ume gehiagok eman zuten izena kurtso hasieran, eta kopurua mantentzea lortu dugu".

Proiektu berriei ere atea baldu dizkiete 2023 honetan, eta, Gasteizko Aerobic Biribildu klubarekin elkarlanean arituz, zortzi pertsonako aerostep espezialitatean talde bat sortzea lortu dute -Arrasateko lau eta Gasteizko beste lau-. Zortzikotea Turkiara abiatuko da azaroan, Europa mailako txapelketa batean parte hartzeko.

Gutxieneoak izan arren, lehiaketetan "nabarmentzeko emaitzak" izan dituzte: "Gipuzkoako



Arrasate Dragoikoak, 2022ko kurtso amaierako erakustaldian. ENEKO AZURMENDI

"GUTXIENEOA IZAN ARREN, LORTU DIRA NABARMENTZECO EMAITZAK TXAPELKETETAN"

Txapelketan infantil mailakoek hirugarren postua lortu zuten; eta aerobikeko taldea ere eduki dabil: Arrasate Dragoikoko gimnasta gehienek lehenengo postua lortu zuten Euskadiko Txapelketan, eta gutxi batzuek bigarren saria eskuratu zuten. Hala ere, berebiziko garrantzia ematen diogu aurten txapelketetan dugun gimnasta kopuruari, eta ez lortu dituzten emaitzei".

Txapelketei begira

Espainiako Txapelketan lehiatuko dira gimnasta arrasatearrak; normalean maiatzean izaten den arren, aurten hilabete bat atzeratu da lehiaketa, eta ekainaren 15 eta 18 bitartean jokatu da; Arrasate Dragoiko irakasleak Espainiako Txapelketan lehiatzeko "itxaroten eta prest" daudela aurreratu du: "Aspaldi hasi ginen prestatzen, eta ohi baino

beranduago da; beraz, txapelketa lehiatzeko prest gaude, eguna itxaroten".

Azaroan duten Europa mailako txapelketa "zerbait berria" dela adierazi du Edurne Elkorok, eta zaila izango dela gaineratu du: "Turkiako esperientzia "berria da denontzako, gastu handia da eta ez dira laguntza asko ematen. Horrez gainera, gimnasta batentzako sakrifizio handia da Europa mailako txapelketa batean parte hartzea; entrenamendu asko izaten dituzte eta Gasteizera joan behar izaten dute. Edozelan ere, oso pozik daude duten aukeratik; horrenbestez, gu talde bezala ere pozik gaude haiengatik".

Gonbidatu bereziak

Zapatuan egingo den ikuskizuna -gimnasia eta aerobik erakustaldiak- Arrasate Dragoi gimnasia taldeak urtero antolatzen duen azken jaiak izango da. Aurtengo emanaldiak berritasun bat izango du: kurtsoan zehar aritu diren gimnastez aparte, Turkiako Europako Txapelketa joango den aerostep taldearen muntaia ikusteko aukera izango dute herritarrek.



ARRASATE ESKUBALOI TALDEA

Hondartzan azken txapelketa

Beste behin, Zumaian jokatzeko den eskubaloiko hondartza txapelketarekin agurtu du denboraldia Arrasate Eskubaloi taldeak; aurten, klubeko infantil mailako hiru taldek jokatu dute lehiaketan. Han lorturiko emaitzak gutxieneoak izanik, egun ederra igaro zuten neska-mutilek; eskubaloiaz gozatu eta bainua hartzeko aukera izan zuten.



IMANOL SORIANO

2.600 litro zerbeza saldu dituzte

Asteburuko Garagardo Azokak amaiera borobila izan du, beste behin. Hiru egunetan zehar jendez lepo egon da karpa, eta Herriko Plaza herritarren bilgune izan da: unibertsitateko ikasleak, Arrasateko familiez, nagusiz eta gaztez bete da plaza; eta 120 pertsonaren lanari esker 2.600 litro garagardo eta 600 botila saldu dituzte.

OHARRAK

Kurtso amaiera

Mondrak kurtso amaierako ekitaldia antolatu du: 12:00etan sari banaketa izango da eta 14:00etan bazkaria; dena, Musakolako kiroldegian.

Karate erakustaldia

Ekainaren 10ean kurtso amaierako karate erakustaldia egingo du Saioa klubak, 17:30ean, Uarkape frontoian.



Komunikazio Campusa 2023

Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan



NOIZ: 2023ko uztailaren 3tik 7ra.

TALDEA: 15 lagun, gehienez.

NON: Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

ORDUTEGIA: 09:00-13:30 (ordu erdiko atsedenaldiarekin).

NORENDAKO:

DBH-4ko eta batxilergoko lehen mailako gazteak.

IZEN-EMATEA:

2023ko ekainaren 19ra arte.

PREZIOA: 125 euro.

Master-eskolak adituen eskutik:



Xabier Urzelai

Goienako kazetaritza-argazkigintza aditua.



Unai Portilla

Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko irakaslea.



Anima zaitetz eta eman izena!

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Izen-ematea zabalik:

www.labur.eus/komunikaziocampusa2023

Informazio gehiago:

600 02 27 20

komunikaziocampusa@mondragon.edu

Hasier Larrea ARRASATE

Herriko musika eskolak ginga jarriko dio bihar mende Erdiko ibilbidea ospatzeko ikasturte osoko egitarauari. Urtean zehar kontzertu bereziak egin dituzte, martxoan Uarkapen plazaratutakoa kasu, baina biharkoari festa itxura gehitu gura izan diote, egun osoan ekintza gozagarriak antolatuta.

Musika eskolen topaketa

Urtero egiten den Debagoieneko musika eskolen topaketaren enbaxadore-rola hartu du Arrasate Musikalek, nahiz eta aurten ez zen hemen egitea tokatzen. "Baina 50. urteurrenaren harira, polita iruditu zitzaigun Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Bergarako musika eskolak ere gure festaren parte izatera gonbidatzea", azaldu du Arrasate Irratian asteon Marta Izagirre zuzendariak.

Hala, bihar, zapatua, goizeko hamarretan, musika eskolako gaitero taldeak irekiko du festa handia: erdigunean zehar kale-jiratxo egingo du. 10:30ean, Herriko Plazan, bost musika eskoletako kideei harrera egingo zaie, eta, ordu erdi geroago, emanaldiak egiten hasiko dira Monterron parkean, Seber Altube plazan eta Herriko Plazan. "Berria da hainbat gunetan une berean kontzertuak egitearena, baina aurten halaxe erabaki dugu, ahalik eta musikari gehienek aukerak zabaltzeko; aire librean izatearen abantailak aprobetxatuko ditugu, gainera, musikarekin batera dantza emanaldiak egongo baitira", azaldu du Izagirrek.

Emanaldi horiek musika eskolen arteko harremanak sendotuko dituzte, eta, Arrasate Musikalen kasuan, talde instru-



Musika eskolako eta Banana Shake eta The Potes taldeetako kideak, biharko egitaraua erakusten. A.M.

Arrasate Musikalen egun osoko festa zapatuan

50. urteurrenoko jaialdi handia egingo dute bihar, goizean zehar Debagoieneko musika eskolen topaketa eginda, eguerdian paella erraldoia janda eta arratsaldean The Potesekin elkarlanean landutako kontzertu gogoangarria eginda

mental mistoak, folk taldea, hari taldea, Izan Suzuki taldea, dantza taldea, haize-egur taldea, Banda Gaztea eta Big Band Gaztea ikusi eta entzuteko aukera egongo da, 11:00etan hasi eta 13:00ak bitartean.

13:15ean, berriz, kalejira egingo du Garinband taldeak Arbolapetan hasi eta Herriko Plazaraino, eta 14:15erako paella-jana

zain izango dute Kulturolako beheko solairuan.

Herri bazkaria

Arrasate Musikalek duela hamar urte antolatu zuen azken herri bazkaria; hain justu ere, 40 urte bete zituenean. Orain formula berari heldu diote, "elkarrekin bazkaltzeak beti irekitzen baititu alaitasunerako ateak". Era

berean, bazkarira bertaratuko dutenei musika eskolaren kamiseta eta zapia soinean jantzita joateko dei egin diete.

Tradizioa eta modernitatea

Arratsalderako, apustu ausarta egin dute, estilo modernoak eta tradizionalak nahastuta. Izan ere, The Potes folk-rock taldearen eta Arrasate Musikaleko

bandaren arteko kontzertu bateratua egingo dute Monterron parkean. The Potesek kaleratu dituen bi diskoetako hamabi kanta aukeratu dituzte fusio hori gauzatzeko. Emanaldia 19:00etan irekiko du Banana Shake taldeak, eta segidan igoko dira agertokira 60 lagun inguru, denera.

Bitxikeria moduan, Izagirrek aipatu du bai The Poteseko eta bai Banana Shakeko musikari dezente musika eskolan ikasitakoak direla: "Gurekin oinarri bat jaso eta nork bere ibilbidea egitea oso pozgarria da; nork daki... agian, aurrerantzean ere egingo ditugu halako elkarlanak ikasle ohiekin".

Udaberri musikala

Kontzertu gogoangarri hori ez da musika eskolako urteko azken jendaurreko ekitaldia izango, udaberri ziklo musikaleko egitarauari oraindik azken txanpa geratzen baitzaio aurretik. Datorren astebarruko hitzorduei dagokienez, astelehenean piano kontzertua egingo dute Monterron jauregian, 19:00etan, martitzenean flauta eta akordeoi ikasleen txanda izango da Juan Arzamendiko auditoriumean, 18:00etan, eta egunean, toki berean, kantu-emanaldia egingo dute, 18:30ean.

Eta datorren asteburuan ere protagonistak izango dira ikasleak. Besteak beste, dantza taldeak ikasturte bukaerako ikuskizuna taularatuko du Amaia antzokian ostiralean, 19:00etan.

URTE OSOAN LAN HANDIA EGIN DUTE URTEMUGAREN HARIRA, ETA ORAIN, OSPATZEA DAGOKIE

Dokeren Katezoro taldea Gazte Antzerki Topaketan arituko da

13 eta 16 urte arteko antzerkilariak 'Zenbat negar eta zenbat min' obra aurkeztuko dute egunean Donostian

H.L. ARRASATE

Doke antzerki eskola Arrasate-kanpora irtengo da lehen aldiz datorren astean. Atzo arratsaldean, eguna, 12 eta 13 urte arteko Ezberdin-berdinak taldeak *Goxokilandia* obra aurkeztu zuen

publikoaren aurrean, eta Katezoro taldeak, aldiz, *Zenbat negar eta zenbat min*. Bada, antzezlan hori datorren ostegunean ere taularatuko dute, hilaren 15ean; kasu horretan, Donostian egiten den Gazte Antzerki Topaketan.

Hitzordua Lugaritz aretoan izango da, 18:00etan.

Maidier Alcelay irakasleak azaldu du antzerkilariak asmatu dutela gidoia: "Ikasturte hasieran zertaz hitz egin nahi zuten galdetu nien, eta *Pandoraren kutxa* zabaldu zuten. Injustiziak, homofobia, gaixotasun mentalak, bakardadea eta halako gai serioak lantzea proposatu zuten, eta halaxe egin dugu, gai bakoitzarekin istorio bana asmatuta. Pozik gaude eman diguten aukerarekin".

Hasiberrientzako zeramika ikastaroa antolatu du Loixek

Loixe taldeak hastapen mailako ikastaro trinkoa antolatu du Kulturolan uztailearen 3tik 13ra, asteleheneetik ostegunera, 10:00etatik 12:00etara. Hutsetik hasita, zeramika prozesuak ezagutu, teknikak eta akaberak landu eta piezak sortuko dituzte partaideek. Izena emateko edo gehiago jakiteko, deitu 685 79 61 27 telefono-zenbakira.



Zeramikako piezak. LOIXE



Maiatzean egin zuten lehen bilera herritarrekin. A.E.G.

Udalaren estrategiak eta ekintzak parkeari buruz

Udalak parke eolikoaren gaineko deliberazio jardunaldia deitu du biharko, zapatua: 09:30ean elkartuko dira, eskolan. Aurrez eman behar da izena, 688 64 80 40 zenbakian. Aztiker Soziologia ikerguneak bideratuko du batzarra

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO Aramaio Udalak parke eolikoaren inguruko deliberazio jardunaldia deitu du. Aztiker Soziologia Ikergunearekin elkarlanean egiten dabilen prozesuaren bigarren pausoa izango da biharko batzarra. 09:30etik 14:00ak bitartean izango da jardunaldia, eskolan. Jardunaldian parte hartu nahi duenak izena aurrez eman beharko du. Horretarako hiru bide daude: labur.eus/aramaio-jardunaldiak atarian dagoen galdetegi beteta, iariztimuno@aztiker.eus helbidera idatzita edo 688 64 80 40 zenbakian.

Proiektuaren argitalpena Maiatzaren 11n argitaratu zuen Statkraft enpresak Itsaraz parke eolikoaren proiektua. Gaur egun, proiektuari alegazioak jartzeko epea irekita dago. Hori horrela, batzarraren asmoetako bat da Udalak egiten dabilen ekintzen informazioa ematea. Deliberazio jardunaldiak hiru puntu nagusi

si izango ditu: argitaratu den proiektuaren aurrean Udalak egiten ari den ekintza-multzoaren berri ematea; Aztikerrekin egindako ikerketaren lehenengo diagnosiaren emaitzen berri ematea; eta deliberazio ariketa egitea: *Zer estrategia eta ekintza jorratu ditzake Udalak Parke eolikoaren proiektuaren aurrean?* Udalak eta Aztikerrekin herriaren ekarpena garrantzitsutzat jo dute; izan ere, Udalak nahi du parkearen lanketa herri adostasunez eta bermearekin egitea.

Imajinario konpartitua Martxoaren 22an egin zuten lehen batzarra herritarrekin. Ordutik herritarren iritziak

UDALAK NAHI DU LANKETA HORI HERRI ADOSTASUNEZ ETA BERMEAREKIN AURRERA ERAMATEA

jasotzen ibili dira Aztikerreko teknikariak. "Banakako eta taldekako diagnosiak egin ditugu, profil askotariko herritarrekin", azaldu dute Aztikerreko teknikariak.

Biharko saioan gaiaren inguruko diagnosis eta lan ildo aukerak aztertuko dituzte. Orain arte egindako elkarrizketetan sumatu dituzten herri lanketarako ildo nagusien baitan landuko dituzte proposamenak: "Mahai ezberdinak sortuko ditugu eta imajinario konpartitua bat sortzea izango da asmoa; ez dadila izan Udalak goitik beheara ezarritako zerbait". Aztikerreko teknikariek hauxe gehitu dute: "Helburua da lankidetzeta eta hausnarketa kolektiboa aktibatzea eta lantzea".

Alegazio epea Alegazio epea luzatzeko eskaera onartu egin diote Udalari; herritarrek ere eska dezakete luzapena Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztan.

Gorbeialdeko musika topaketa egingo dute bihar Izarran

Gorbeialdea Musikaz Blai! jardunaldia egingo dute; Aramaio musikariak Izarran egongo dira

A.E.G. ARAMAIO

Gorbeialdea Musikaz Blai! jardunaldia egingo dute bihar, zapatua, Izarran. Gorbeialdeko musika topaketa izango da, eta hainbat musika eskolak parte hartuko dute; tartean, Aramaio-koak. Egun osoko jaia izango da: 10:00etatik 16:00ak arte egingo dituzte ekintzak.

10:00etan, Aramaio, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako musika eskolen taldeen kontzertuak egongo dira kultura etxean. 12:00etan, kalejira egingo dute: kultura etxetik Izarrako elizara

joango dira musikarekin kaleak girtzen. 12:30ean, abesbatzen txanda izango da. Elizan egingo duten kontzertuan parte hartuko dute Aramaio Bizente Goikoetxea abesbatzak, Mairuk, Umek eta Zurbano abesbatzak.

14:00etan musika jardunaldia- ren ekitaldi amaiera egingo dute, Lolaenean; ondoren, 14:15ean, luntxa izango dute Gorbeialdea Musikaz Blai! jardunaldian parte hartuko duten musikari guztiek. Itzulerako autobusak Ostuño aparkalekutik irtengo dira, 16:00etan.



ENEKO AZURMENDI

Eskolako jai arrakastatsua

Aramaio Herri Eskolak ikasturte amaierako jaia egin zuen zapatuan. Aurtengo ekintza solidarioa Senegalgo Dionewar eskualdeari bideratutakoa izan da; plastikoa egoki birziklatzeko proiektura bideratuko dute batutako dirua. Eskolako arduradunek adierazi dute 256,25 euro batu zituztela zapatuko jaietan.

Twin Room bikotearen musika gaur Sastiñan

Sastiñako musika jaialdiak bigarren hitzordua izango du gaur: Twin Room taldeak pop-swing doinuak eroango ditu plazara. 19:30ean izango da emanaldia. Sonia Vera eta Josu Jungitu dira taldekideak. 2012an sortu zuten taldea, Malalenguan egindako *jam session* baten ondoren. Musika oso pertsonala egiten du bikoteak.

Zortzi bikote ari dira Lagun Arteko Pilota Txapelketan lehiatzen

Aramaio Lagun Arteko III. Pilota Txapelketa jokatzeko dabilen herriko zortzi bikote. Bi taldetan banatuta, liga erant jokatzeko dabilen bikote guztiek elkarren aurka. Ekainaren 24an eta 25ean finalerdiak jokatzeko aurrekusten dute, eta finala ekainaren 30ean izango da, San Martin jaietako txupinazoaren ondoren.



laz lehenengoz egindako jaietan batutako lagunak. ATXABALTA HARRO

"Harrotasunari tinko" eusteko egitarau zabala

Otsailean eratu zen Atxabalta Harro LGTBIQ elkarteak bigarren bezala antolatu du komunitate horren nazioarteko egunaren bueltako ospakizuna; oraingoan, aste osoko egitaraua zehaztu dute, eta hilaren 12tik 17ra bitartean ekintza mordoak izango dira

Mirari Altube ARETXABALETA

Ekainaren 28an da LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna, eta, horren bueltan, lehenengoz antolatu zuten iaz Atxabalta Harro Eguna. Orduko arrakasta ikusirik, elkarte ofiziala sortzea erabaki zuten sei lagunek, eta, otsaila ezker, Atxabalta Harro LGTBIQ elkarteak martxan da. Aurten egitarau mardulagoa antolatzea erabaki dute eta ekainaren 12tik 17ra bitartean egunero izango da ekintzaren bat edo beste; jai giroak, osterak, zapatuan egingo du eztanda.

Hausnarketa eta jaiak

"Ospakizun handiagoa eta hobe" antolatzea da asmoa, eta herritar orori irekia izatea: "Edonondako ekitaldiak antolatzen saiatu gara, eta gonbidatuta daude; umeak, gazteak, helduak eta adinekoak batuko dituen egitaraua egin gura izan dugu. Harrotasuna aldarrikatzea guztion eginbeharra da, berdintasunaren barruan guztiok egin behar dugu borrokan, eta, hortik abiatuta, gure jaietan herritar guztiak dute lekua".

Hausnarketa sustatzeko guneak proposatu dituzte; astelehenean, esaterako, *El sexo sentido* filmaren bueltan transen egoeraren bilakaera izango dute hizpide; martitzenean, identitatearen eta

genero-rolen gaineko jolasak egingo dituzte umeekin; eta eguaztenean, Loratuz Lotu elkarteak *Trans izanez* hitzaldia egingo dute. Egubakoitzean, osterak, murala margotuko du *Mutikokristal*-ek.

"Asteari ginga jarriko diogu zapatuko jaiarekin", adierazi dute. Goizean diana eta pregoia egingo dituzte, eta bazkaria pilotalekuan –txartelak salgai daude Paulaner eta Ezkutu tabernetan–. "Bazkalostean ezusteko batzuk ere izango dira: jokoak, bingoa... Eta handik aurrera giro ona ziurtatuta dago: karaokea, Michael Night DJa, muxu-festa, reggaeton zaharra eta tekno eta house musika".

'LGTBIAQ+' liburu gida

Berdintasun Sailak eta udal liburutegiak *LGTBIAQ+* liburu-gida atera dute. Helburua da LGTBIQ+ gaiak lantzen dituzten liburuak herritarren esku jartzea, eta hamazazpi lan daude kontsultagai: narratiba-liburuak, komikiak eta kontsulta-liburuak.

Egitaraua

- Ekainak 12**
- **18:30** Dokumentala: *El sexo sentido*. Arkupe.
- Ekainak 13**
- **10:00** Merkaturia: *Harrotasunean tinko*.
 - **17:30** Umeendako jolasak. Plaza.
- Ekainak 14**
- **18:00** Hitzaldia: *Trans izanez*. Loratuz Lotu elkarteak. Arkupe.
- Ekainak 15**
- **19:00** Poteoa. Portasol.
- Ekainak 16**
- **18:00** Mural margotzea. *Mutikokristal*. Express.

- Ekainak 17**
- **11:00** Dianitza.
 - **12:00** Pregoa. Plaza.
 - **12:00** Karropoteoa.
 - **15:00** Bazkaria. Frontoia.
 - **19:00** Karaokea. Kixkor.
 - **21:00** DJ Michael Night. Arlutz.
 - **23:00** DJ Jaizki (Orly), Muxu Fest! (Haizea), DJ Tilla (Ezkutu).



IMANOL SORIANO

Giro ona nagusi Aretxarte Jaian

Bigarren urtez jarraian, Aretxarteko jaiak ospatu zuten merkatarien eta ostalarien elkarteek joan den asteburuan. Herriko kaleak girozko eta herria alaitasunez betetzeko helburuarekin egin zuten festa, eta giro ederrean aritu ziren musika, dantza, jolas eta janari artean. Aretxarteko kideak hurrengo edizioan pentsatzen hasiak dira dagoeneko.



LORAMENDI ELKARTEA

Jakien bueltako kulturen jaiak

Loramendi eta Gu Haziak Gara elkarteek antolatuta, kultura arteko bazkaria egin zuten joan den domekan pilotalekuan. Hainbat jatorritako bizilagunak elkartu ziren eguna jai giroan pasatzeko. "Jaki gozoen bueltan elkartu ginen. Ondoren, festa borobildu zuten musikak eta dantzek, eta oso giro polita sortu zen", adierazi dute antolatzaileek.

Ikasturteari agur esateko jaiak egingo dute Kurtzebarrikoek

Altxorraren bila jolasarekin egingo diote jaiari Kurtzebarri eskolakoek (10:30). Trikitilarietara kalejira egingo dute (11:30), eta batukadak ere girozko dituzte kaleak (12:00). Gero, *Eguzkiari agurra* ikuskizuna eskainiko dute plazan (13:00). Pilotalekuan bazkalduko dute (14:30), eta arratsaldean jolasak eta musika izango dituzte, besteak beste.

Mobiliario
ARENZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ALEkoak zazpigarrenak Euskelec txapelketan

Aretxabaletako Lanbide Eskolan ekoizitako ibilgailu elektrikoak Bilbon jokaturako txapelketan hartu du parte; proba dinamikoak eta eraginkortasun-probak gainditu behar izan zituen. Ekaitz Zabarte ikaslea "oso pozik" agertu da egindako lasterketarekin

Oier Zumarraga ARETXABAETA

Lanbide Heziketako ikasleek ekoizitako auto elektrikoek Euskelec lehiaketan parte hartu zuten asteburuan. Egiaztapen teknikoak gainditu ondoren, erresistentzia lasterketan mehezimenduzko zazpigarren postuan amaitzea lortu zuten ALEkoek. Guztira, 30 talde ibili ziren lehiari, eta, Ekaitz Zabarte ikaslea eta gidariak adierazi duenez, aurkarien maila oso handia izan zen. %100 elektriko den ibilgailu bat diseinatu eta eraiki behar izan zuten, oinarri motor komun batetik abiatuta. Lehenengo fasean prototipoa aurkeztu zuten eta bigarrenan, berriz, ibilgailuen prestazioak,

ezaugarriak eta diseinua ebaluatu zituzten.

Egitasmoaren helburu nagusietako bat ikasleen arteko talde-lana sustatzea izan da, betiere, ibilgailu elektrikoaren ezagutza elementu pedagogiko gisa erabiliz. Esaterako, Markel Peñakoba Elektromekanikako ikaslea sistema elektrikoaren arduratu da, eta rola ondo banatzearen garrantzia nabarmendu du. Ikasleek erronka gisa hartu zuten proiektua, eta, hain zuzen, bizitako esperientzia izugarria izan zela aitortu dute.

Proiektu neketsua

Proiektua hilabete bakarrean atera zuten aurrera, eta Peña-

kobak eta Zabartek aitortu dute "denboraz justu" ibili zirela. Izan ere, prozesu osoan, batik bat, koadro elektrikoak buruhauste asko sortu zizkien, baina azkeneko auto elektrikoaren puntu-puntu jartzea lortu zuten. Hala ere, emaitzarekin pozik bukatu zuten, eta egindako lan guztiak merezi izan duela berretsi dute.

Parte-hartzaile guztietatik, hemeretzi ibilgailu Euskadiko Lanbide Heziketan egindakoak izan ziren; bederatzi, beste autonomia erkidego batzuetatik etorritakoek –Aragoi, Gaztela-Mantxa eta Kantabria–; eta, bi talde gonbidatuek ere parte hartu zuten.



URBALTZ ELKARTEA

Kataluniarrekin festa giroan

Tarragonako Montferri herritik etorritako 47 lagunek festarako aitzakia ekarri zuten joan den egubakoitzean; Urbaltz elkarteak gonbidatuta etorri ziren. Zapatuan 150 lagun elkartu ziren bazkaltzeko, eta gauean bola-txapelketa egin zuten. Domekan inguruak ezagutu zituzten: Mendibitzun gazta egin zuten eta Arientza-Etxebarriko behi ustiatagia bisitatu, besteak beste.

Judit Neddermann abeslariak plaza girotuko du domekan

Abeslaria eta konpositorea da Judit Neddermann (Vilassar de Mar, Bartzelona, 1991), eta bakarka argitaratutako bost disko ditu. Azkena oraintsu kaleratu du, *Lar* izeneko, eta brasildar musikari eta iberiar folkloreari esker oneko albuma da. Disko horretako kantuak eta beste hainbat eskainiko ditu domekan Herriko Plazan, 20:00etan hasita.

Hamar urtez The Gramophone Allstars proiektuaren abeslaria izan zen Neddermann. Folk eta musika modernoa oinarri dituen kantuak sortu ditu eta abeslari ezagunekin lan egin izan du; besteak beste, Alejandro Sanz, Joan Manuel Serrat, Rozalen eta Macacorekin.

Euspot lehiaketara 149 spot aurkeztu dituzte, guztira

Euskarazko spot lehiaketara lanak entregatzeko epea amaitu da, inoiz baino parte-hartze handiagoarekin. Parte-hartzaileek 30 segundo inguruko iragarkiak sortu behar izan dituzte, *Zientzialari eta ikertzaile izan nahi dut!* lelopean. Helburua da gazteengan zientziarekiko eta teknologiarekiko grina piztea, gizarte erronkei aurre egiteko.

Sari banaketa ekitaldia ekainaren 15ean egingo dute, eguena, Arkupe kultur etxean, 19:00etan hasita. Sei sari banatuko dituzte eta horietako bat publikoak hautatu du; 1.700 boto baino gehiago jaso dira. Lan onenaren egileak 1.000 euro eskuratuko ditu.



ALEko ikasleak Euskelec lehiaketan. ARETXABAETA LANBIDE ESKOLA

RPS: 83/19

Durana
Horts Klinika

**INPLANTOLOGIAKO
ESPEZIALISTAK 3D
TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN**

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN
ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABAETA • TEL.: 943 79 93 55

Amuarrainak prestatzen maisu Bittor Barandiaran

Kanpezuko (Araba) Arrea! jatetxeko sukaldari eskoriatzarra hirugarren geratu da Leonen egiten den Espainiako Amuarrain Lehiaketan. Barandiaranen esanetan, azken sei hilabeteak "sekulakoak" izaten ari dira, abenduan Michelin izarra lortu baitzuten

Hasier Larrea ESKORIATZA

Bittor Barandiaranek ez zekien Espainia mailan amuarrainen gastronomia lehiaketa egiten zenik ere, baina, antza, sukaldaritzaren txapelketa zaharretako da Leonen egiten den hori, aurtun 57. aldiz antolatu dute eta. Arrea! jatetxeko ugazabari eman zioten deialdiaren berri, eta hark eskoriatzarrari enkargatu zion egitekoa. "Jatetxean arrainen sailaz arduratzen naizenez, erronka bota zidan, eta nik onartu", dio Barandiaranek.

Sailkatze-proba gaintitza lortu, eta hiru platerako sekuentzia aurkeztu zuen astelehenean jokatutako finalean. "Lehenengo errezeta amuarrainaren azalarekin egindako sandwich modakutxo bat da; bigarrena, bizkarrezurreko hezur eta haragiekin osatutako kontsomea; eta hirugarrenak ukitu asiarrak dauka, arrainen okela laminatan zatitu, biribilkiak egin eta tako estiloan aurkeztu baititugu", azaldu du sukaldariak.

Arrea!-ko filosofiarekin bat

Finaleko hamabi partaideen artean, epaimahaiari hirugarren saria emateko modukoa iruditu zitzaion Michelin izarra duen jatetxeko kideen proposamena. Elaborazioan, Kanpezura aro



Ezker-eskuin, Bittor Barandiaran eta Iker Suso, sariaz gozaten. EFE

INDUSTRIA-AURREKO KULTURA GASTRONOMIKOA ARDATZ HARTUTA EGITEN DUTE LAN

industrialia iritsi aurreko kultura errespetatu gura izan dutela aipatu du Barandiaranek: "Gure jatetxearen oinarri-oinarritzko ideia da; mendiko, erre-kako eta uzta-bilketako produktak baino ez ditugu erabiltzen,

baita sojaren antzeko saltsak egiteko ere".

Lagunen arteko elkarlana

Sukaldariak Arrea!-ko lankide Iker Susoren laguntza izan du prozesu osoan, eta, horrez gain, platerak txukun aurkezteko June Larzabal lagunarengana jo du. "Ilusioa egiten zidan errezetak hark egindako plateretan aurkezteak, eta saria jasotzeak asko pozten nau harengatik ere", dio Barandiaranek.

Sari bikoitza, beraz, eskoriatzarrek irabazi dutena.

"Txipa aldatzeko" asmoz, Aste Zapatista hilaren 12tik 17ra

Datorren astean zehar izango dira Eskozap jardunaldiak, Mexikoko zapatistek laguntzen jarraitzeko

H.L. ESKORIATZA

Sei egunez jarraian askotariko ekintza solidarioetan parte hartzeko aukera izango dute adin guztietako herritarrek. Astelehenean, 19:00etan, elkarri besarkadak ematen hasiko dute egitaraua, Herriko Plazan. "Dohainik egiten diren keinu txikiak dira besarkadak, eta ematea kostatu egiten zaigu, hala ere", azaldu du urtero Chiapas aldera joan ohi den Iurre Romaratezabala antolatzaileak. Ildo beretik, martitzenean Carlos Taibok Errusiaren eta Ukrainaren arteko tirabirak azal-

duko ditu kultur etxean, 17:30ean. Eguaztenean, kalejira egingo dute, 17:00etan, Jose Aranako egoiliarrekin, eta 18:00etan, Herriko Plazan, haurrentzako piñata-jolasa eta Mai malabaristaren ikuskizuna egongo dira. Eguenean, 17:00etan, mural parte hartzailea margotuko dute Mutiko Kristal-lekin, eta 20:00etan, Txiki bakarriketariak barrea eragingo du Inkernun. Ostiraleko piñata-tailerren eta Bixentak taldearen kontzertuaren ondoren, zapatuan azoka, herri bazkaria eta jokoak egingo dituzte.



RAFA CARRIE

Atamakoak, primeran

Getarian jokatu zituzten joan den asteburuan Gipuzkoako eta Euskadiko kenpo txapelketak, alebin mailatik hasi eta senior mailara arte. Kata, kobudo, goshin eta borroka modalitateetan lehiatu ziren Eskoriatzako Atama klubeko borrokalariak, arrakastaz lehiatu ere: 42 dominaren jabe egin ziren; horietatik 22, urrezkoak.

Platerak, erreko harriekin eginak

June Larzabal zeramikaria Irlandan zegoen egonaldia egiten Barandiaranek platerak egiteko eskatu zionean: "Amuarrainak errekan ibiltzen direnez, hango harriekin egindako platerak gura zituela azaldu zidan, eta halaxe egin nuen: harriak molde bezala erabili eta tailerrean landu. Ontzi-joko bat bidali nion lehenengo, eta gero, beste sei".



Larzabalen platerak, amuarrain-errezeten aurkezpenarako. GOIENA / LEONOTICIAS



Kontzejupeko pilota txapelketarako izen-ematea abian da

Ekainaren 24an, zapatua, jokatuko dira Kontzejupeko eskupilota txapelketak; 10:00etan hasiko da 16 urtez azpikoena eta 16:00etan nagusia. Izen-ematea hilaren 21ean itxiko dute. Parte hartu nahi duten bikoteek Inkernu tabernara joan behar dute; bikote bakoitzeko kide bat, behintzat, eskoriatzarra izatea da parte hartzeko baldintza.

Energia komunitatea sortzeko aukerak aztertuko dituzte

Ekainaren 5eko energiaren arazoari buruzko hitzaldira "interesa handia erakutsi zuen jende ugari" azaldu zela iritzita, Jauzi Ekosozialak eta Goienerrek herrian Energia Elkartearen sortzeko aukerak aztertuko dituzte, kanpoko energiarekiko dependentzia jaisteko. Harremanetarako, idatzi eskoenergia.komunitatea@gmail.com helbidera.



lako festan, kamiseta arrosak soinean, kalejiran ikastetxearen aurrealdetik pasatzen. I. SORIANO

Eskolako jaia kalera, astindu gogoz bandera

Ekaineko bigarren zapatua da bihar, herrian ondo jakina den bezala, Luis Ezeiza Herri Eskolako jaia ospatzeko eguna. Aste Kulturala borobiltzeko, ekitaldiz josiko dira Eskoriatzako kaleak, goiz eta arratsalde. Gaur, oster, ipuinak izango dituzte hizpide

Hasier Larrea ESKORIATZA

Joan den asteburuan, Arizmendi Ikastolak antolatutako Ferixie izan zen protagonista, eta asteburu honetan Eskoriatzako eskola publikoari tokatuko zaio erdiguneko kaleak kolorez eta poztasunez margotzea. Hasiak dira dagoeneko ospakizunekin, Aste Kulturalaren bitartez. "Joan den astean gozogintza tailerra egin genuen, pertsona erreferenteak eskolara etorri ziren eta azokan ere postua jartzeko aukera izan genuen; aste honetan, berriz, kultura diziplina ugariri heldu diete neska-mutilek", azaldu du Maitane Gomez de Segurak, Luis Ezeiza ikastetxeke zuzendariak.

Antzezlanen antzezlan

Hala, Lehen Hezkuntzako ikasleek azken hilabeteotan landutako antzezlanak aurkeztu dituzte egunotan, "ikasturte bukaera aukera ona izaten baita egindako lanak plazaratzeko". Martitzenean, 2. eta 3. maila-

koen txanda izan zen, eta atzo, osteguna, 5. eta 6. mailakoena. Asteazkenean, gainera, Arrasate Herri eskolakoak joan ziren 6. mailako txotxongilo-emanaldia zuzenean jarraitzera, baita Kurtzebarrikoak ere 2. mailako antzerkia ikustera.

Ipuinak, hainbat hizkuntzatan

Gaur, ostirala, berriz, ipuinetan jarriko dute arreta, eta kontalariak eskola komunitatea osatzen duten kideak izango dira, gainera; kasu horretan, gurasoak. Gomez de Segurak zera adierazi du: "Gustatzen zaigu eragile horiek eskolara gonbidatzea; oraingoan, ipuinak hainbat hizkuntzatan kontatzera etorriko dira: hassanieraz, polonieraz,

LUIS EZEIZA ESKOLAN EGITEN DUTEN LANA HERRIRA ZABALTZEKO EGUNA IZANGO DA ZAPATUKO

gasteleraz, euskaraz... egingo dituzte kontaktak". Horren ostean, ipuinen inguruko jolasak egingo dituzte, eta, eguna borobiltzeko, 6. mailakoak Haur Hezkuntzara joango dira jolasak egitera.

Biharko egitaraua

Zapatua izango da, azkenik, asteari ginga jartzeko unea: 10:00etan, txupina bota eta musikak lagundutako kalejiran irtingo dira herri eskolako kideak; 11:00etan, ikasleek ikuskizuna egingo dute Herriko Plazan; eta, handik ordu erdira, tailerretan eta jolasetan parte harteari ekingo diote; 13:00etan, buruhandiengandik ihes egiten saiatuko dira; eta 14:00etan eskolako arkupeetan egingo duten herri bazkarian beteko dute sabela. Bazkalostea euskal kantekin eta bingoarekin girotutakoa izateaz gain, puzgarrietan dibertitzeko aukera egongo da. Amaitzeko, 18:00etarako, apar festa eta 18:30 DJa daude programatuta.

"Ez dut gaez sekula korrika egin, ea nola moldatzen garen"

IKER BARANDIARAN MENDI LASTERKARIA

Lasterketetan ikusle izatetik partaide izatera pasa da

H.L. LEINTZ GATZAGA


Eskoriatzako Gabez Takarraren lasterketan parte hartuko du lehen aldiz, bihar, Iker Barandiaranek (Leintz Gatzaga, 1994). Berria zaitugu mendi lasterketetan. Zer dela-eta probatu duzu?

Badut lagun talde bat mendi lasterketetan parte hartzea gustuko duena: Beñat Agirreurreta, Asier Urizar, Beñat Illarramendi, Iñaki Santamaria, Asier Azkarate... Haiek lehian ikustera joaten nintzen sarri, eta xaxatu egin ninduten neu ere anima nendin. Azkenean, probatu egin nuen eta gustatu egin zitzaidan. Ze mendi probatan hartu duzu parte orain arte?

Joan den apirilean jokaturako Mondraitz lasterketa egitea zen hasieran markatu nuen helburua. Hura hobeto prestatzeko Zumarragako UZ Trailen egin nuen debuta martxoan. Gero, esandako moduan, Mondraitz egin nuen. Duela bi asteburu, Zaldibiako mendi lasterketa motzean aritu nintzen, bestalde. Beraz, zapatukoa laugarren proba izango da niretzat.

Esan daiteke etxean jokaturako duzula, ezta?

Gabez Takarraneko ibilbidea ondo ezagutzen dut, bai. Aurreko aldietan Atxorrotxera eta Makatzgainera igotzen nintzen lasterketa ikustera. Makatzgainerako joan-etorria sarritan egiten dut, gainera, entrenamendu moduan, asko gustatzen baitzait. Baina, egia esan, ez dut inoiz gaez korrika egin. Hala



Zaldibian, duela pare bat aste. I.B.

ere, gogotsu nago, nola irteten den ikusteko irrikaz.

Lehiakorra zara?

Mendi lasterketak ondo pasatzeko eta kirola egiteko egiten ditut, baina lehia puntu horrek ere erakartzen nau. Hamar urtean jokatu nuen UDAREN areto futbol taldean, eta bizikletan ere ibili izan naiz.

Nolako lan-saioak egiten dituzu?

Hasieran, ez nekien nola hasi; beraz, Beñat Agirreurretari eskatu nion jarraibide batzuk jartzeko. Jarduera fisikoko enpresa du Beñatek: BA. Kirol Zientziak. Batean, mendian aritzen naiz ordubetez balio batzuk lantzen; bestean, indarrari ematen diot garrantzia gimnasioan; hurrena, bizikleta hartzen dut... Mendi lasterketen mundu honetan sartzen asko lagundu dit Beñatek, baina baita AIKEko fisioterapeutek ere.

Ondasun Higiezin Zerga hil bukaerara arte ordain daiteke

Maiatzean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu moduan, Ondasun Higiezin gainera Zergaren borondatezko epealdiko kobrantza kanpaina 2023ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era izango da. Aurtengo apirilaren 26a baino lehen helbideratutako ordainagiriak entitate finantzarioen kontu korrontetatik kobratuko dira zuzenean.

Helbideratu gabeko ordainagiriak, berriz, komunikazio elektronikoko bitartez igorriko zaizkie bidalketa mota hori aukeratu dutenei, maiatzaren 15etik aurrera.

Gainontzeko zergadunei maiatzaren zehar ordainagiria bidali zitzaizen adierazitako zerga helbidera posta bidez. Zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, Bergarako Herriarren Arretarako Bulegoan -Toki Eder 5- eskatu beharko du, astebarruko goizetan.



BKEko eta Realeko ordezkariekin batera, *Gaztelu*-ren senitartekoen ere hartu zuten parte omenaldiaren aurkezpenean. J.B.L.

Agurra futbolari garrantzitsuenari

2020ko abenduaren 30ean hil zen Jose Agustin Aranzabal 'Gaztelu' omenduko dute bihar Agorrosinen (12:00), Bergarako eta Realeko beterranoen arteko partidu batekin. Hasieran, Liga Nazionalerako igoera historikoa lortu duten BKEko gazte mailakoei aitortza egingo diete

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2020ko abenduaren 30ean hil zen Jose Agustin Aranzabal *Gaztelu* (Bergara, 1946, Bergara 2020), Bergarak inoiz eman duen futbol jokalaririk esanguratsuenetako bat. Gipuzkoako Federazioko presidentea eta Bergara Kirol Elkarteko zuzendaritzako kide ohi Manu Diaz bergararraren arabera, "lokatzetan dantzan egiten zuten mutila" izan zen *Gaztelu*. 1964ko ekainaren 7an, BKEko gazte mailan zegoela, Bartzelona Agorrosinen garaitu zuen (2-1) taldeko gidarietako bat izan zen erdilari bergararra. "Larunbat arratsalde hartan, zela lokaztuan, gazte bergararrek herriko kirol arloko garaipenik handienetako bat lortu zuten, lokatzetan dantza egiteko gai zen 17 urteko mutil bat buru zutela. 2-1 Kataluniako erraldoiaren aurka, *Gaztelu*-ren zaldi gainean, han

mahoiz jantzitako ez zihuan inork ez zuela irabazten esan baitzuen. Eta hortik, gailurrera. 15 urte Realean, benetako *one club man*. 1970eko hamarkadako futbolaren ikono bat, Puertollanoko igoera eta lehen Liga txuri-urdina bizi

izan zituen, beti irribarre egiten zuten mutila izateari utzi gabe", dio Diazek.

Pandemia igaro ostean, aitortza Martitzen arratsaldean egindako aurkezpenean azaldu zuten

Haren koloreak, mahoia eta txuri-urdina

BKE edo Club Deportivo Vergaran hasi zen futboleko *Gaztelu*. 1964ko Bartzelonaren aurkako partidu historikoaren ostean Realera egin zuen salto, 1966an, eta Realarekin hamalau denboraldi egin zituen. 1976ko derbi historikoan –ikurrina atera zutenekoa– intsignia jaso zuen, Realean hamar urte egiteagatik. Realak lehen liga irabazi zuenean erretiratu zen, 1980-1981eko denboraldian.



Gaztelu, seme Agustin Aranzabalekin, 1976ko derbi historikoan. REAL SOCIEDAD



1964ko ekainaren 7an Bartzelona 2-1 menderatu zuen taldea, Agorrosinen. BKE

Bartzelona estu hartu zuen taldean

Omenaldiko karteletako argazki nagusia da goikoa, eta 1964ko Club Deportivo Vergarako jokalariek ageri dira bertan: zutik, ezkerretik eskuinera, Iñarra, Olabide, Akizu, Abajo, Pardina, *Gaztelu* eta Lete; eta, makurtuta, Juaristi, Garate, Gallastegi, Igarza eta San Vicente. Agorrosinen Bartzelona ahalguztiduna 2-1 menderatu zuen taldea da, gazte mailako Errege Kopako final-laurdenetako joaneko partiduan. Itzulerakoan, Bartzelonan, 7-2 galdu zuten; taldeko kapitain Luis Abajok ondo gogoratzen ditu bi partiduak: "Joanekoan jendez goraino zegoen beteta Agorrosin; argazkian bertan ikusten da. Ederto jokatu eta irabaztea lortu genuen. Buelako kanporaketan zikin jokatu zuten gurekin; Rambletan hotela jarri eta arropak-eta banatu ostean, Tibidabo jolasparcera igo gintuzten, eta, gero, autobusera heltzeko lau kilometro egin behar izan genituen. Lehortuta heldu ginen partidura".

BKEko presidente Iosu Elorzak nondik sortu zen *Gaztelu* omentzeko ideia: "2020ko abenduan hil zen, pandemia garai betean. Orduan ezin izan genion omenaldirik egin Bergarak eman duen futbol jokalaririk garrantzitsuenari, baina klubean beti izan dugu gaia presente. Orain, denboraldi osoa normaltasunez egin ahal izan dugunean, pentsatu dugu denboraldia boro-biltzeko une aproposa zela omenaldia antolatzea. Familiari komentatu genion eta ideia

asko gustatu zitzaion". Omenaldiaren amaieran, azken urteetako ohiturari eutsiz, Mahonero sariak banatuko dituzte.

Garai bateko izarrak Agorrosinen Biharko omenaldia 12:00etan hasiko da, Agorrosinen. Ekitaldiaren hasieran, maiatzaren 21ean UDAREN aurka bana berdindu ostean Liga Nazionalerako igoera lortu zuen gazte mailako taldea izango da protagonistak. Ondoren, *Gaztelu*-ren senitartekoei omenaldi txiki bat egingo diete, eta ostean hasiko da Bergarako eta Realeko beterranoen arteko partidu.

Hala, Agorrosinera joaten denak garai bateko izarrak ikusteko aukera izango du. Izan ere, Realaren partetik honako jokalaririk ohi hauek hartuko dute parte biharko partidu berezian; guztiak Realeko edo Sanseko jokalaririk ohiak: Pablo Blazquez, Asier Perez, Iñigo Martinez – Sansen jokatu zuena –, Gorka Dueñas, Mikel Zipritia, Alex Aizpurua, Aitor Lopez Rekarte, Iñigo Arteaga, Gorka Solana, Michel Loinaz, Oier Larrainzar, Oskar Campo, Joseba Agirre,


'Gaztelu'-ren hutsunea, hiru belaunaldiren ahotan



JUANJO ARRIETA REALEKO ZUZENDARITZAKO KIDE OHIA

"Zelaian gogorra izaten ez zion inork irabazten"

"Elkarrekin jokatu genuen urtebetez. *Gaztelu* gazte mailatik zetorren, oso indartsu, eta ni ordurako beterranoa nintzen. Harreman pertsonal oso ona izan nuen beti harekin, eta pena eman zidan haren heriotzaren berri izan nuenean, asko sentitu nuen. Gizon zabala, irribarretsua eta jatorra zen oso; eta futbol arloan, zer esan... Ez zen, akaso, jokalaria teknikoena izango, baina oso gogorra zen futbol zelaian; baloi guztiak azkenera arte lehiatzen inork ez zion irabazten".



INAXIO KORTABARRIA REALEKO KAPITAIN OHIA

"Dena ematen zuen zelaian eta oso atsegina zen"

"Pertsona oso ona zen, eta futbol jokalaria trebea, benetan. Futbol jokalaria gisa dena ematen zuen horietakoa zen, oso gogorra eta indartsua. Altueraz txikia izan arren, salto egiteko sekulako gaitasuna zuen, eta azkarra zen zentzu guztietan. Hori bai, ez zuen zorte handirik izan lesioekin... Pertsonalki, *Gaztelu*-rekin tokatu izan zitzaidan hoteleko gelak partekatzea, eta berriro diot oso pertsona atsegina zela. Oso triste jarri nintzen haren heriotzaren berri izan nuenean".



ASIER GARITANO REALEKO ENTRENATZAILE OHIA

"Kasta eta ofizio handikoa zen, erreferente bat"

"Aitaren lagun pertsonala zen. 10 urte nituela ia domekero joaten ginen Atotxara *Gaztelu*-k lagatuko sarrerekin. Igeldoko kontzentrazio hotelera joan, kafetxo bat hartu, sarrerek jaso, eta futbolera. Kasta handiko jokalaria zen, kamiseta asko izerditzen zuena. Ofizio handia zuen, eta hainbat postutan jokatzeko gaitasuna. Ez zen teknikoena izango, baina Lehen Mailan urte pila bat jokatzeko gai izan zen, eta horretarako talentu handia behar da. Pena handia hartu nuen; niretzat erreferente bat zen".

Mikel Roteta, Iker Rodellar, German Zudaire, Tomas Orbeago, Luis Perez eta Xabi Prieto. Realeko beterranoen entrenatzaileak dira Xanti Bakero eta Iñigo Elozegi. Eta, jokatu ez badute ere, harmailetan izango dira bihar, besteak beste, Alberto Gorriz, Jesus Mari Zamora eta Santi Idigoras.

Bergararen partetik, honako hau da Fernando Juaristi entrenatzailearen zerrenda: Aitor Zubia (atezaina), Iñaki Mardaras (atezaina), Igor Unzurrunzaga, Mikel Osoro, Unai Arana, Edu Agirre (kapitaina), Josetxo Lizarralde, Mikel Otero, Unai Agirre, Gorka San Vicente, Imanol Cabanillas, Markel Ilzarbe, Piti Rodrigo, Isma Navas, Jabi Igarza, Patxi Vallejo, Iker Etxebarri, Mikel Larrañaga *Maki*, Juan Luis Etxaniz, Carlos Sanchez, Jabi Fernandez, Javi Ibarra, Mikel Jimenez, Bitxor Alkorta, Elias Garcia, Ion Aiausti, Eugenio Barkero, Juan Luis Izuzkiza, Josu Azkarate eta Josu Arana.

Familiaren esker on hitzak

Gaztelu-ren seme Agustin Aranabalek ere ibilbide oparoa izan

zuen, 1992tik 2004ra Realeko jokalaria aipagarrienetako bat izateraino; esker on hitzak izan ditu: "Ederra da aita bere herrian omentzea. Oso pozik daude ama eta arreba ere bai, eta une hau baliatu nahi dut eskerrak emateko Bergara Kirol Elkarte osoari eta Realeko beterranoei. Deneriko jendea etorriko da; hasieran, gazte mailako jokalariek izango dira protagonista, eta gero, aitaren lagun eta ezagun asko eta Realeko ordezkari asko egongo dira. Egun oso hunkigara

ria izango da familiarentzat; ea denok disfrutatzen dugun".

Futbol zelaian bai, baina zelaian kanpo ere arrastoa utzi zuen *Gaztelu*-k, haren semeak azaldu duenez: "Jokalaria moduan urte asko egin zituen, baina pertsona moduan zuen balioa azpimarratuko nuke, batik batik. Ezagutu zuten guztiek esan izan didate pertsona oso ona zela, beti zegoela umore onarekin eta irribarre batekin. Horrelako hitzak beti geratuko zaizkigu oroimenez".

Odol-ematea: harrera ona bada ere, 50 urtetik beherako bilak

Ekainaren 14an Odola Emateko Nazioarteko Eguna dela-eta, dei berezia egin du herriko elkarteak

J.B.L. BERGARA

Ekainaren 14an Odol Emateko Nazioarteko Eguna ospatuko dela ekarri du gogora Bergarako Odol Emateko Elkarteak: "Hamabost egunean behin Donostiako odol bankuko lagunak etortzen dira; Mariaren Lagundira eta Miguel Altunara ere joaten dira urtean birritan. Odola emateko deiek erantzun ezin hobea dute emateko partetik; hala ere, belaunaldi aldaketa bermatu ahal izateko, 50 urtetik beherako hogeita emakumezko eta 30 gizonzko beharko genituzke".

la 1.000 emaile Bergaran

Begaranoa ia mila emaile dituzte gaur egun, eta horietatik 540 dira aktiboak -254 emakumezko eta 280 gizonzko-; iaz 1.148 donazio kontabilizatu zituzten.

Begarako beharrez harago, elkartetik ohartarazi dute Euskal Autonomia Erkidegoan egungo 125 donazio behar izaten direla, eta horrek esan nahi du bost minutuan behin norbaitek odola behar duela EAEn. Odola emateko prest dauden herritarrek 747 42 99 20 telefono-zenbakira dei dezakete (Dulce).

OHARRAK

Kantu jira herrikoia antolatu dute berriro ere

Jardunen eta Udalaren eskutik, ekainaren 18an berriro irtengo dira kantuan; plazatik, 12:30ean. Amaieran, mokadutxo egingo dute. Hilaren 14an entseatuko dute San Josepe elkartean (19:00).

San Juan auzoa ezagutzeko bisita gidatua

San Juan auzoaren garapenerako Obieta elkarteak antolatuta, Erreka enpresaren ondoan elkartuko dira bihar, hilak 10, 11:00etan. Izena emateko, deitu edo *whatsapp*-a bidali: 659 29 79 65.

Kooperatibismo antiarrazista lantzeko saioa

Migress Barcelonaren esperientziatik ikasten: kooperatibismo antiarrazista izena duen saioa egingo dute gaur Mizpildi kaleko 2. zenbakian dagoen Ehunduren bulegoan (18:00).

Osintxuko pintxoak direla-eta dirua itzultzea

Ekainaren 4an egin zen nazioarteko pintxoaren dastatzea dela-eta honako mezua helarazi dute: "Eskerririk asko etorri zinetenoi eta eskolaren alde musu-truk lanean ibili zinetenoi. Hala ere, kantitateak ez genituen ondo neurtu; txartela erosi eta pintxo barik geratu zirenei dirua itzuliko diegu". Eskera egiteko, mezua bidali behar da *osintxukooperatiba@gmail.com* helbidera.

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihoak · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Entzuna Registratu Nº100/025

**ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.
943 76 59 54 BERGARA

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Laboratorium museoa dagoen erakusketako antolatzaileak eta artista, aurkezpenean. BERGARAKO UDALA

Mauricio Antonen lanak, Laboratoriumen ikusgai

Aurreko egubakoitzean hasita, 'Iragana ilustratzen: Mauricio Anton eta paleoartea' erakusketa dago abuztuaren 21era Bergarako museoan; gaur egun existitzen ez diren hominidoen espezieak eta beste animalia batzuen irudiak batzen ditu

Aitziber Aranburuzabala Juldain
BERGARA

Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Kate-drak, EHU Kulturak eta Laboratorium Bergara Zientzia Museoak Madrilgo Museo Arkeologiko eta Paleontologikoarekin elkarlanean antolatutako erakusketa da; Aranzadi zientzia elkartearen laguntza ere izan du, erakusgai dagoen pieza baten lagapena eginda.

Begarako alkate Gorka Artolaren esanetan, "ohorea da" Mauricio Antonen erakusketa Bergarara ekarri ahal izatea. "Behala pentsatu genuen gurera ere ekarri behar genuela, eta eginahalak egin ditugu hori lortu arte". Laboratoriumeko arduradun Rosa Errazkinek museoaren izaera nabarmenduta, berretsi egin du erakusketa herrira ekartzearen garrantzia. "Gizarte museoa den heinean, eta herri batean kokatuta egonda, Laboratoriumek zientziaren dibulgazioan ekarpena egiteko ezinbes-

tekoa dela uste dugu, eta horretan indar berezia jartzen dugu. Maila horretako lanak hiri handietan egoten dira ikusgai, eta uste dugu badagokigula herritarrei gerturatzea; horregatik aipatzen dut herrien garrantzia".

Animalien ilustrazioak

Paleoartean autore garrantzitsu bilakatu den Antonek Madrilgo Natura Zientzien Museo Nazionalako (CSIC) Paleobiologia Sailarekin hainbat artikulu zientifiko argitaratu ditu eta BBCrekin eta National Geographic aldizkariarekin lankidetzan aritu da dokumental paleontologikoak produzitzen. 2006an, Society of Vertebrate Paleontologyren Lanzerdorf sa-

ANTON ILUSTRATZAILE PALEONTOLOGIKOAREN LANETAN GARAI BATEKO ANIMALIAK DIRA PROTAGONISTA

ria irabazi zuen ilustrazio zientifiko onenagatik. "Anton sona handiko artista da, haren obrak munduko museo garrantzitsuetan daude", gaineratu dute antolatzaileek.

Gaur egun existitzen ez diren hominidoen espezieak eta beste animalia batzuen irudiak eta horiek sortzeko prozesua ikus daitezke Laboratoriumen dagoen bilduman, eta erakusketak duen dibulgazio izaeraren garrantzia aipatu dute erakunde bultzatzaileek. "Lan prozesua nola den azaldu nahi genuen, eta erakutsi artea eta zientzia eskutik doazela lan horietan".

'Zientzia kalean', sarreran

Egunerokotasunean erabiltzen diren tresnen funtzionamenduari eta elikagaiei buruzko azalpen zientifikoak batu dituzte hamaika infografiarekin osatuta dagoen *Zientzia kalean* izena duen erakusketan. Laboratoriumeko sarreran dago, uztaillaren 28ra bitartean ikusgai.



Begarako txistularien emanaldia, 2020ko San Antonio jaietan. GOIENA

San Antonioko eta Elosuko Otaba jaiak asteburuan

Txistulari Bandaren emanaldia, bertso-saioa eta askotariko kultura eta kirol proposamenak, gaur hasita

A .A. J. BERGARA

Ekainaren 13an, martitzena, da San Antonio eguna, eta, urtero moduan, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, gaur hasita, izen bera duen Bergarako auzoan. Haurrentzako zezentxoak eta poneyak izango dira, 16:30ean hasita, eta buruhandiak eta sardina-jana ondoren, DJ eta karaoke doinuek lagunduta gero.

Txistulari Bandaren eta erraldoien kalejirarekin ekingo diete biharko ospakizunei, txistularien emanaldia proposatu dute 12:30erako eta auzo-bazkaria, Gure Ametsa elkartearen, 15:00etarako. Eta kadete mailako San Antonio saria jokatu dute, 17:00etan hasita (Ikus 33. orria).

Elosuko Otaba jaiak ere bai

Bihar, zapatua hasi eta astelehena bitartean Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosuan. Bandera

jaso eta etxafuegoak jaurti ondoren, mus txapelketa egingo dute, 16:30ean. Maialen Akizu eta Aitor Sarriegi bertsolariak gonbidatuta egingo dute bertso-afaria, 20:30ean hasita.

Erretiratuei eskainitako eguna izango da domeka, eta euren omenezko bazkaria egingo dute, 14:00etan, Elumendi elkartearen. Askotariko kirol ekitaldiak ere izango dira aukeran domekan: pilota partidak (12:30) eta herri kirolen erakustaldia (18:00); Paulo Azpiazu eta Ainitze Zumeta izango dira harriak jasotzen eta Ugaitz Mugertzak eta Maika Aristegik jardungo dute aizkoarekin lehian.

Otaba Txiki eguna ospatuko dute astelehenean. 13:00etan, *piskolabitxa*; eta auzo bazkaria 15:00etan. Trikiti doinuekin potea iluntzean, eta auzo afaria eta erromeria gauerdian, bandera igo aurretik.

Egun osoko jaialdia egingo du gaur San Martin Agirre eskolak

Agorrosin Guraso Elkartearrekin elkarlanean askotariko ekitaldiekin betetako egitaraua prestatu dute amaitze dagoen ikasturtea agurtzeko. 09:15ean egingo dute, Lehen Hezkuntzakoekin, txupinazoa, trikitilariarekin kalejira ondoren eta Usondo parkean krosa gero. Eskolako txikiarekin bigarren txupinazoa egingo dute, 10:15ean, eta, ha-

marretako osasuntsuaren ostean, askotariko tailerrak egingo dituzte Lehen Hezkuntzako patioan.

15:30ean ekingo diote arratsalderako prestatutako ekintzen zerrendari, patioan egingo dituzten jolasak proposatuta. Txokolata-jana 16:45ean, eta musika emanaldia eta tailerrak ondoren, 20:00etan elkarrekin afaltzeko mahaian jarri aurretik. Afalostean, berriz, bingoa, eta dantza egin gura dutenentzako DJ Arno gonbidatu dute, egun osoko jaialdia borobiltzeko.

Dolomitetan dabilta Pol-Poleko beteranoak

Astebeteko egonaldian, besteak beste, Cortina d' Ampezzo, Arabba, Corvara eta Marmolada inguruetan egiten dabilta mendi zeharkaldiak. Giro ederrean dabilta 54 mendizaleak. "Nahiz eta egunero egin digun euri apur bat", dio Aitor Erañak

Xabier Urzelai Atxa BERGARA

Amaitu berri den Italiako Giroan helikopteroz erakutsi izan dituzten Dolomitako paraje ikusgarrietan dabilta Pol-Poleko beteranoak joan den zapatua ezker. Tre Cime Di Lavaredo, Passo Giau, Passo Tre Croci, Marmolada... Egungo eta garai bateko ziklistek etapa mitikoak jokatu izan dituzte inguruotan, baina bergararrak beste martxa batean dabilta inguru haiez gozatzen, lasaiago, eta oinez mendi zeharkaldiak eginez. "Oso ondo gabiltza, mendian ibiltzeko giro paregabea egiten du, baina egia da egun guztietan egiten digula, lehenago edo ge-

roago, euri apur bat. Dena dela, mendian hala ibiltzera ohituta gaude; horrenbestez, ez dugu inongo arazorik", dio Aitor Erañak. Bergarakoak nabarmendu du filmetan ikusi izan dituzten parajeekin egin dutela topo: "Ikusgarriak dira Dolomitak, bertako belardi eta tontorrak".

Lerrook irakurtzen dituzue nerako, bost egunez mendian ibili eta gero bergararrak Cortina d'Ampezzora itzulita egongo dira, eta handik Sestora joango dira gaur, egubakoitza: "Mendirik mendi ibili eta gero, azken eguna turismo apur bat egiteko aprobeztatuko dugu, Seston. Eta zapatuan Veneziaara

joango gara, handik Bilborako bidea hartzeko".

Ohitura bilakatu diren bidaiak

Erañak aitortzen duenez, Pol-Polek 2017an 75. urteurrena ospatu zuenetik ohitura bilakatu dira bidaia horiek. "La Palmara joan ginen orduan, eta, ondoren, jendea hasi zen eskatzen urtero halako bat antolatzeko". Bada, pandemiak eraginda bi urtez bertan behera utzi behar izan zuten egitasmoa, baina segituan errekuperatu dute, eta bistan da harrera oso ona dutela: "Egon gara Mallorcan, Cazorlan, Montseny inguruetan... eta orain, berriz, Dolomitetara etorri gara".



Izotz asko dago mendi tontorretan. POL-POL



San Cassiano eta Corvara arteko zeharkaldiaren une bat. POL-POL

MUSIKAREKIN,
DANTZAREKIN
HAZI HEZI ETA BIZI!

**MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK
2023-2024**

maiatzaren 2tik ekainaren 15era

Gerturatu eta
ezagutu gaitzazu,
hitzordua eskatu!

**BERGARAKO
MUSIKA
ETA DANTZA
ESKOLA**



MUSIKAREKIN HAZI!

3-6 urte bitartekoentzat

- Suzuki metodoa 3-6 urte
- Musika eta Sormen Txokoa 5-6 urte
- Hasiberrien abesbatza 5-8 urte
- Dantza 6 urtetik aurrera

MUSIKAREKIN HEZI!

7 urtetik aurrera

- Hizkuntza Musikala
- Musika Tresna
- Abesbatza
- Taldeak
- Musikoterapia
- Dantza

MUSIKAREKIN BIZI!

Musikak ez du adinik: gazteak eta +55

- Musika Tresna
- Musikarekin gozatzen
- Musika irakurketa
- Taldeak
- Dantza



943 76 57 80 - 679 15 45 12

idazkaritza@bme.e.telefonica.net

www.bergarakomusikaeskola.com





Zishan Tariq eta Xabier Legorburu, Antzuolako Mairuaren Alardearen muralaren aurrean, martitzenean. A.R.K.

Zishan Tariq izango da Alardeko mairua

Uztailaren 15ean, zapatua, izango da Mairuaren Alardea, herriko jaietan, eta orduan egingo du estreinaldia Tariqek. Esperientzia "berria eta interesgarria" dela dio, eta, orain, ikastea dagokiola. Horretarako, Alardearen elkarteko kideak izango ditu alboan

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Kostata, baina, azkenean, Antzuolako Alardeak badu mairua, Zishan Tariq antzuolarrak hartuko baitu Juan Carlos Gomezen lekukoa, bere burua propio horretarako aurkeztu ondoren. "Urtero ikusten dut Alardea, baina ez zait inoiz burutik pasatu ere egin parte hartzea. Aurtengo kontua izan da. Lagun batek esan zidan mairua falta zela, eta apuntatzeko. Animatu egin nintzen, eta eskuzabalik hartu ninduten elkartekoek".

Mairuaren Alardearen Kultur Elkarteko kidea da Xabier Legorburu, eta "oso gustura" daude Tariqen izendapenarekin. "Bazen, zelanbait, bila ari ginea: Antzuolako gazte batek bere burua eskaini du Alardean parte hartzeko, eta, gainera, horrelako postu esanguratsu baterako". Haren arabera, mairua izateak "bereziatasunak" baititu. "Plaza gizona-edo izan behar da plazan agertzeko, tenplearekin

egoteko. Bada, orain rol horri dagokion zer egin zela den ikasi beharko du".

Tariqek ere argi du orain ikastea dagokiola. Mairuaren arropak probatu beharko ditu lehen-dabizi, eta zaldiaren gainean nola ibili ere ikasi beharko du, mairua hala ageri baita Alardean. "Lehengo mairuarekin ere egon beharko dut, gauzak nola egin behar ditudan ikasteko; praktikatu egin beharko dut, nola hitz egin behar den jakin". Alabaina, erantsi du horretarako elkarteko kideak ere alboan izango dituela, eta horixe bera berretsi du Legorburuk. "Gu hor egongo gara, eta baita Juan Carlos ere. Prest dago Zishanen ondoan egoteko eta erakusteko; alde

ALARDEA URTERO IKUSTEN DU TARIQEK, BAINA EZ DU INOIZ PENTSATU PARTE HARTZEA

horretatik, ez du laguntzarik faltako".

Herriari eginiko deia

Alardeak, beraz, badu mairua, baina parte hartzaile gehiago behar ditu. Legorburuk azaldu duenez, oro har, ahoz ahokoari esker lortu izan dute jendea, baina pandemiaren ostean beldur ziren. "Iaz mahai bat jarri genuen izen ematerako, eta uste dut positiboa izan zela. Aurten ere horrela egin dugu, eta parte hartzaile berriak ditugu. Batetik, aurretik parte hartu izan duen jendea dago, baina, bestetik, izan dugu aukera herritar gehiagorengana iristeko ere". Hala ere, aitortu du ez dutela "nahi beste" jende erdietsi.

Parte hartu nahi duenak, ordea, oraindik badu horretarako aukera. 643 52 96 00 telefono-zenbakia eta antzuolakoalardea@gmail.com helbidea jarri dituzte eskura, eta entseguen daten berri ere eman dute: uztailaren 5ean eta 12an egingo dira.

Martxan jartzeko ohiko prozesua eginda, zabalik dago ur-parkea

10:30etik 20:00etara arteko ordutegia izango du, eta irailera arte izango da han gozatzeko aukera

A.R.K. ANTZUOLA

Bainu denboraldia martxan da Debagoieneko herri gehienetan, eta horrela da Antzuolan ere, ekainaren 7an zabaldu baitzuten Sagasti auzoko ur-parkea, eguaztenean.

Ohikoa den moduan, martxan jartzeko ohiko prozesua jarraitu da, hala nola garbiketa eta desinfekzio sakona eginda eta sistema berrikusita. Horrez gainera, *Legionella pneumophila* bakterioaren aurkako tratamendua ere egin da, eta ur-parkea abian jartzeko baimen guztiak

kudeatu dituzte Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin.

Hala, hasiera batean, iraileko bigarren asteburura arte izango da ur-parkeaz gozatzeko aukera, 10:30etik 20:00etara; irailaren 10era arte.

Berrikuntza bat

Udalak azaldu duenez, aurten berrikuntza bat egin diote parkeari, uraren eremua egurrezko itxidura batekin inguratu dute eta. Era horretan, bi sarrera eta irteera jarri dituzte, eta helburua da lokatz gutxiago sortzea.

Gipuzkoako kopako finala jokatu dute AKEko gazteek

AKEko gazteen mutilen taldeak Gipuzkoako kopako finala jokatu du bihar. Usurbil izango du aurkari eta Debako Errotazar futbol zelaian izango da partidua, 17:00etan. Azaldu dutenez, "horrelako elkarrekin txiki batentzat gauza handia da" final hori jokatzeko, eta taldeko jokalariek gazteentzat "aurrera jarraitzeko bultzada izugarria" litzateke.

Arrola elkarrekin batzar nagusia egingo du egunean

Urtero legez, batzar nagusia egingo du Arrola mendizale elkarrekin, egindakoei eta egin beharrekoiei erreposoa egiteko asmoz. Bazkideei eta federatuei zuzenduta dago bilera, eta Olarango bigarren pisuko aretoan egingo dute. Ekainaren 15ean izango da, eguena, arratsaldeko zazpietan.

Aurreko urteko akta onartzearekin batera, diruaren gorabeherak izango dituzte mintzagai, eta baita 2023ko ekintzak ere. Horrez gain, adin txikikoak diren parte hartzaileei dagokienez, hartutako erabakien berri emanango dute, eta, azkenik, batzarkideak berrikutuko dituzte. Galderak egin ahal izango dira.

Ginkana eta prozesioa egingo dira asteburu honetan Ondarren

Aiastui txirrindularitza elkarrekin antolatuta, ginkana egingo dute bihar eguerdiko hamabietan, Ondarre auzoan. Horrez gain, Corpusak direla-eta, prozesioa ere egingo da etzi, eta, ondoren, dantzarien saioa. Hala, Udalak ohartarazi du zapatu goizetik domeka eguerdira arte autoak auzotik ateratzea komeni dela, ekintzak egin ahal izateko.

OHARRAK

Bide mozketa

Gipuzkoako kadeteen erlojuaren aurkako txapelketa dela-eta, etzi, 16:30etik 19:00etara, Bergara eta Antzuola artean.

Trikiti emanaldia

Secundino Esnaola musika eskolako ikasleak, hilaren 12an, 19:00etan, Torresoroan.

Gimnasia erakustaldia

Ariznoa taldeko gimnastak, hilaren 14an, 17:30ean, pilotalekuan.

Herri bazkaria

Uztailaren 14an, Udalak antolatuta. Txartelak liburutegian eta udaletxean daude salgai.

Ekainean festa giroa izango da nagusi Elgetan

Gaur dute Eskolako Jaia Herri Eskolan, eta ondoren etorriko da Beheko kaleko jaien aldeko tonbola. Torrealdeko jaiak hilaren 15ean eta 16an izango dira, eta Ferixa Nagusiko jaien aurretik etorriko dira udako solstizio inguruko ospakizunak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Agenda beteta dator ekainean, eta festa girokoak dira proposamen ia guztiak. Gaur, esaterako, Eskolako Jaia dute Herri Eskolan. 09:00etatik dihardute ekintza bereziak egiten. Alde batetik, 2020an hasitako ganbarako horma-irudia handitzen ari dira, eta ipuin kontaketa zein irakasleek eta familiek antolatutako tailerrak dituzte. 16:00etatik aurrera eskola atarian kokatuko da jaia eta komunitate osoari zabalduko ekintzak egingo dituzte: herri kirolak (16:00etan) –izen-emate orria eskolaren sarrera egongo da–, dantza koreografiak (17:00etan), eta puzgarriak zein urmaelaren gaineko informazio txokoa.

Herri osoari zabalduko jaia da; eskolako beheko eta lehen solairuko komunak erabilgarri egongo dira. Eskolako kamiseta edo jertsea eramateko eskatu dute ikastetxetik.

Beheko kaleko jaiak

Gaur, 19:00etan, urteroko tonbola egingo dute plaza barrenean. Askotariko sariak egongo dira eskuragarri eta bildutako dirua jaietako gastuei aurre egiteko izango da. Jaiak eguenean hasiko dira. Uretako txirrista erraldoia (16:15), bits festa (19:00),



Beheko kaleko jaien aldeko tonbola, iaz. JAI BATZORDEA

ESKOLAKO JAI DA GAUR HERRI ESKOLAN, ETA TONBOLA EGINGO DUTE BEHEKO KALEKOEK

etxean egindako patata tortilla lehiaketa (19:30), Unai Cantabranaren kontzertua (19:34) eta Baobeer garagardo dastaketa (20:00) daude iragarrita. Biheramuneko auzo-afarirako txar-telek salgai jarraitzen dute Lo-

lan –umeak– zein Goikoetxe harategian –helduak–.

San Juan bezpera

Udako solstizioaren bueltako ekitaldiak ere prest daude: DJ Xaibor (17:30), ogitarteko bana-keta (20.00) eta sua izango dira. Eskolak, guraso elkarteak, Udalak eta liburutegiak antolatutako egitaraua da. Liburutegitik, bestalde, umeendako ipuin saioa iragarri dute martitzenerako, 17:00etan, eta astroargazkilaritzari buruzko astrotopaketa eguaztenerako, 18:30ean.

Elgetaren historian zehar beste bidaia bat hilaren 16tik aurrera

Udal Artxiboko boluntarioek argazki erakusketa, hiru argitalpen berri eta zortzi historia-panel ondu dituzte

L.Z.L. ELGETA

Arrakastatsua izan zen abenduan Txema Barrutiak, Manolo Cainzosek eta Fernando Larrañagak Udalarekin elkarlanean prestatutako erakusketa. Boluntario taldeak lanean jarraitzen du, eta beste erakusketa bat zabalduko du hilaren 16an.

Erakusketan Elgetako 80 berriren argazkiak eta nazionalak 1937an egindako errolda egongo dira ikusgai –zenbat pertsona eta zenbat abere etxeko–. Horrekin batera, Elgetan dauden bederatzi ermiten ar-

gazkiak eta erregistratuta dauden hamabi erroten –bakarra dago zutik– marrazkiak egongo dira ikusgai. Maddi Etxanizek egin ditu marrazkiak.

Hiru argitalpen eta zortzi panel

Hiru argitalpen ere aurkeztuko dituzte: *Ermitek Elgetan*, *Elgetako errota* eta *Elgetako Haizea* izeneko ipuina, haurrei herriko historia azaltzen diena. Zortzi historia panel ere diseinatu dituzte, aire zabaletako museo proiektu gisa. Elizpean jarriko dituzte ikusgai.



L.Z.L.

Eskolako ikasleak, Goienan

Herri Eskolako seigarren mailako ikasleak Goiena Komunikazio Taldeko instalazioak ezagutzen izan ziren eguaztenean. Hamahiru ikasle eta Arantxa Eparza irakasleak erredakzioa, administrazioa eta telebistako platoa ikusi zituzten. Platoan aurkezle, elkarriketatu, soinu teknikari eta irudi teknikari lanetan apur bat aritzeko aukera ere izan zuten.

Bergarako musika banda Elgetan izango da ekainaren 18an

Xalbadorpe erretiratuen elkar-teko kideek hainbat ekintza iragarri dituzte ekainerako, horien artean Bergarako musika bandaren kontzertua. Udalarekin elkarlanean antolatuta, banda hilaren 18an izango da herrian; 11:00etan kalejira egingo dute, eta 12:30ean kontzertua Espaloian. Bergarako bandan ere gogotsu daude.


Bestalde, jaietako erretiratuen bazkarirako izen-ematea ekainaren 17an zabalduko dute. Xalbadorpeko ordezkariak Ozkarbi elkartearen izango dira 11:00etatik 13:00etara. Izena emateko aukera izango da, baita ere, hilaren 24an eta 25ean. Gainera, erretiratuen elkarteak uztailaren 12rako Santoñara prestatu duen irteerarako izena emateko aukera ere izango da hiru egunetan. Ekaineko podologia kontsulta, berriz, hilaren 21ean izango da.

Ferixa Nagusiko jaiak ere ate joka

Lili Arantzabal Larrañagak jarduneko alkate iraitz Lazkanoren eskutik jaso du kartel lehiaketako saria: ehun euro, hain zuzen ere. Hiru aste besterik ez da falta jaietarako. Euskal dantzak egiteko hilerko elkarten den taldeak esan du aurrerantzean bariku oro elkartuko direla larrain dantza errepasatzeko, 19:00etan, gimnasioan. Ekimen irekia da.



Lili Arantzabal eta Iraitz Lazkano, *Jaietan jai* kartelarekin. UDALA



Laborategiko langile bat liburu bat zaharberritzeko lanetan. IÑIGO BARRENA

Dokumentuen ondarea berreskuratzeko artea

Oñatin dagoen Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintzian dokumentuak zaharberritzeko laborategia dute. Dokumentuak desmuntatu, zaharberritu eta jatorrian zeuden egoerara itzultzen dituzte, ikertzaileek erabili ahal izateko

Iñigo Barrena Kortabarría OÑATI Oñatin dagoen Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintzian artxiboak zaharberritzeko laborategi bat jarri zuten duela urte eta erdi. Orain arte, Gipuzkoan Tolosako artxiboan zegoen liburuak zaharberritzeko laborategi bakarra, eta bigarrena da Oñatin martxan jarri zutena. Zaharkituta dauden

liburuak berriz ere erabilgarri egitea da helburu nagusia, ikertzaileek bertan egon daitekeen historiako informazio baliagarria eskura izan dezaten. Ramon Martin artxibozainaren hitzetan, Gipuzkoan "dokumentu ondare handia" dago eta horrelako "laborategi gehiago" behar dira zaharberritzeko dagoen material guztia berreskuratu ahal izateko

ko: "Laborategi hauek urtean egin dezaketen lan kopurua txikia da, eta, nahiz eta kontserbazio arazoak dituzten dokumentuak proportzioan dokumentu gutxi izan, ehuneko bat baldin bada ere berreskuratu behar dena, derrigorrez laborategi gehiago beharko genituzke ondare guztia berreskuratu ahal izateko".

Itxura berreskuratzen da

Zaharberritzeko prozesu horretan liburuak eta dokumentuak itxura bakarrik berreskuratzen da, galduta dagoen informazioa ezin daiteke eta inolaz ere errekupe-ratu. "Dokumentu horiek bakar-rak dira eta ez dago horien beste kopiarik; ezin dugu jakin propio ze informazio zegoen bertan. Guk antzina zuen egoera berera bueltatzen dugu euskarria bera, ondoren erabilgarri egon dadin", dio Martinek.

Adi jarraitu beharreko pausoak

Berreskuratze prozesuan kontuz ibili beharra izaten dute, akats txikiak ere informazio baliotsua galtzea ekar dezakeelako. Horretarako, liburu edo dokumentu bakoitzak tentuz jarraitu beharreko pausoak ditu. Horretan aritzen da Pepa Cob laborategiko langilea. Hura da dokumentuak zaharberritzearen arduraduna, eta urte eta erdian 60 dokumentutik gora berreskuratu ditu, ondoren erabilgarriak izateko. "Egoera txarrean dagoen liburu baten lehen pausoa askatzea da, desmuntatzea. Ondoren, Pepak dokumentuen mapa bat egiten du, behin lan guztiak amaitutakoan berriz hasierako itxura berarekin muntatu ahal izateko", dio artxibozainak.

Papera sortzen dute

Behin paperak askatuta, falta zaien hutsuneak betetzeko papera sortzen dute laborategiko gune hezean. Horretarako, oinarri batzuen beharra izaten dute, eta hori oraindik martxan dagoen errota batetik eroaten dute. Oinarri horiek lihozkoak eta eukaliptoak izaten dira, eta horiek manipulatu egiten dituzte ondoren beharrezko pa-

pera sortu ahal izateko. "Lihok zuntz luzea du eta honek dokumentu zaharrera itsatsiko den papera batzen du; eukaliptoak, berriz, zuntz laburragoa du eta horrek trinkotasuna ematen dio sortuko dugun paper horri", dio Pepa Cobek.

Dokumentu bakoitzak, ordea, paper kolore propioa izaten du, eta hori ere ondo neurtu beharra dago, amaierako emaitzan berdintzua den kolorea eskuratu ahal izateko. Horretarako, papera sortzeko unean egin beharreko nahasketari koloreak batzen dizkiote, nahasketaren koloreak dokumentuarenarekin bat egiteko edo antzekotasuna lortzeko.

Azken pausoa, uretan

Nahasketa egindakoan, azken pausoa dokumentua uretara sartzea da, nahasketarekin batera. "Paperaren eta uraren arteko harremana jatorritik dator; orduan, Pepak papera eta ura nahasten ditu, pasta bat sortzen da, eta horrela ikusi dezake dokumentuaren zein zatik duen hutsunea betetzeko beharra", dio Ramon Martinek. Berehala sortzen da papera. Eta, azkenik, lehortzen uzten dute; bakoitzak lehortze denbora bat behar du.

Azken lana berriz ere liburuak jatorrizko formatura itzultzea da. Horretarako, dokumentuaren ertzetan soberan dagoen zatia kentzen da, hasieran zuen itxura berreskuratzeko.

LIBURUEN ITXURA BERRITZEN DUTE LABORATEGIAN; INFORMAZIOARIK EZIN DA BERRESKURATU

AHTa: erakusketa eta hitzaldia izango dira datorren astean

AHTrik ez! izeneko astea antolatuko du Astintzen elkarteak, eta erakusketa, hitzaldia eta dokumentala egongo dira. Proiektu horren aurkako 30 urteko borroka jasotzen duen erakusketa 13an zabalduko dute, kultura etxean, 18:30ean, eta AHTrik Ez! plataformako bi kidek hitzaldia egingo dute irekieran. Dokumentala 20an eskainiko dute.

Eskubaloiko Corpus txapelketa bihar goizean jokatuko dute

Bihar, ekainak 10, goizean jokatuko dute urteroko Corpusetako eskubaloiko txapelketa. XV. txapelketa izango da aurtengoa. Infantil mailako Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Aloña Mendiko taldeak lehiatuko dira, neskek eta mutilak. 09:30ean da lehen partidua, Zubikoako kantxa berdean; Gipuzkoa-Aloña Mendi.

Emakume Etxearen espazio proposamenak, jasota

Oñatiko emakumeen nahi eta beharrak planoetan marrazteari ekin dio Emakumion Etxia Eraikitzen parte-hartze proiektuak, eta lehenengo saioan jasotako eskaeretatik espazioen proposamenak eroan zituen maiatzaren amaierako bilera irekiera arkitekto taldeak. Ekarpenekin egindako proposamena 21ean aurkeztuko dute, Eltzian.

Usakoko eta ur txorroten denboraldia zapatuan hasiko da

Zapatuan, ekainak 10, zabalduko dute bainu denboraldia Usakon eta San Lorentzoko ur txorrotetan. Hiru hilabete iraungo du. Eltzia aurrealdeko ur txorrotak egunero erabili ahal izango dira, 11:00etatik 21:00etara. Usakoko sorosle zerbitzua, berriz, 15:00etatik 21:00etara beteko da, eta 16:00etatik 20:00etara bi sorosle egongo dira.

Usakoko ur putzua garbitzen ibili dira, eta kendu dituzte barruan zeuden zuhaitz adarrak eta hondakin txikiak. Asteleheneetik aurrera egongo da, bestalde, Usakoraino joateko autobus zerbitzua: Ugarkaldetik 16:30ean eta 19:30ean abiatzen diren autobusak joango dira haraino. Usakoko uraren kalitatea, berriz, bereziki zainduko dute, analisiak astero eginda. Ezingo da errepide bazterretan eta zubian aparkatu; ohiko belardia egokitu dute aparkaleku moduan.

Jubilatuen Astea ospatuko du Pake Lekuk

Hitzaldi batekin hasiko dute astea astelehenean eta ospakizun egunarekin bukatu domekan, bingo berezia eta dantzaldia eginda. Antolatutakoak eta egingo dituenak erretiratuen arteko harremanak sustatzeko izatea gurako luke zuzendaritza berriak

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Datorren astean ospatuko dute Jubilatuen Astea, Pake Leku erretiratuen elkarteak antolatuta, eta egingo dituzten ekitaldietan parte-hartzaileen artean harremanak sortzea eta egun daudenak sustatzea gurako luke elkarteko zuzendaritza berriak. "Horixe da gure nahia. Datorren astean ez ezik aurrerantzean ere egingo ditugun ekintzetan geure arteko konexio hori lortzea", dio elkarteko presidente berriak, Antonio Alonsok.

Omenduak, senar-emazteak

Jesus Millas medikuak alde aurreko borondateen gainean astelehenean egingo duen hitzaldiarekin hasi eta domekako, (hilak 18) ospakizun egunarekin bukatuko dute Jubilatuen Astea. Andres Agiriano eta Pilar Biain senar-emazteak omenduko dituzte domeka eguerdiko ekitaldian. "Parrokiako klaustroan egingo dugu aurten ere. Kiroldegian izaten zen lehen, baina

oso toki handia da hura eta nahiago genuen toki txikiagoan elkartu, ekitaldia goxoagoa izan dadin. Aurten ere horrela egingo dugu. Luntxa izango dugu han guztiondako, eta prest ditugun opariak han banatuko ditugu".

Dantzaldiarekin egindako aldaketa ere mantendu egingo dute aurten. Kiroldegian izaten zuten lehen, bazkalostean, baina Pake Leku elkartearen bertan egingo dute aurten, bingo bereziaren ostean. Eguenean izango da hori, 17:00etan.

1.208 bazkide gaur egun

Orain arte egindako bidetik jarraitu gura du zuzendaritza berriak, eta dagoeneko lanean

EGUENEAN EGINGO DITUZTE BINGO BEREZIA ETA DANTZALDIA, ELKARTEAN BERTAN

daude batzordeak: hiru lagun daude bidaiak antolatzeko taldean, beste hiru ekintza kulturalak eta egun-pasako irteerak prestatzen, bi lagun administrazioan, beste bi mantentze-lanean eta bestelakoetan pare bat. "Kanpora joateko bidaiak harra ona izaten dute, eta jarraituko dugu antolatzen. Baina baita egun-pasa joateko irteerak ere. Oñati Ezagutzen ekimena, adibidez, polita da, baita Euskal Herriko hainbat toki ezagutzeko egiten diren txangoak ere. Badago jendea bakarrik bizi dena eta horrelako ekintzetan beste batzuekin elkartu eta egunaz disfrutatzen duena. Horixe gura dugu guk, erretiratuen artean harremanak sustatzea".

1.208 bazkide ditu gaur egun Pake Lekuk, eta, gutxi gorabehera, mantendu egiten da kopuru hori, Alonsoren esanetan. Erretiroa hartu ahalaz bat egiten da jendea elkarteko bazkide, eta azken urteetan ez da askorik aldatu kideen kopurua.



NIRE USTEZ

AMAIA EROSTARBE LETAMENDI

Industria-lurra Oñatin

Oñatiko ekonomiaren ardatza industria-jarduera da. Ezinbestekoa da, ordea, HAPO dokumentuan (Hiri-Antolamenduaren Plan Orokorra) nahikoa industria-lur klasifikatuta edukitzea. Santxolopetegi auzoko Fagor Industrial kooperatiba Onnera Group-eko zazpi lantegietako bat da. Bereziki, hornikuntzarako eta sukaldaritzarako eta garbigailuetarako irtenbideak ematen ditu. Orain dela gutxi hasi dira tailer berria eraikitzen Garibaiko eremuan, Madalenako Fagorren parean. Garbitegia sortuko da, garbigailu gehiago ekoizteko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko. Nabarmendu gura dugu Oñatin ez dagoela etorkizunerako lur industrial nahikoa klasifikatuta, herriko enpresak kokatuz eta garatuz joan daitezten. Bai oraindik indarrean dagoen HAPOn, bai HAPOnen Aurrerakinean (2022 2030), klasifikatutako industria-lurra ia-ia berdina dira; hain zuzen, gaur egun herriko enpresek gehiago handian hartuta dituztenak. Hurrengo hamarkadan etorri daitekeen garapena eta hazkundea aurreikusita ere, ez da aztertu industria-lur berririk klasifikatzeko aukerarik dagoen.



Aloña Mendi taldeko jokalariek Zubikoan jokatutako partidu batean. S.B.

Irabaziz gero, Euskal Ligara igoko da areto futboleko taldea

Hiruko torneoak jokatuko du zapatu arratsaldean Zubikoakoan; Gasteiz eta Leioa izango ditu aurkari

O.E.G. OÑATI

Euskal Ligara igotzeko lehia egongo da Ingou Coinbroker Aloña Mendi taldea asteburuan. "Bigarren sailkatu gara ligan eta horrek aukera ematen digu goiko mailarako igoera jokatzeke. Araban eta Bizkaian bigarren egin dutenen kontra jokatuko dugu zapatuan, bihar, hiruko torneoan. Aurten igoera Gipuzkoan jokatzea tokatzen zen, eta, sailkatu den Gipuzkoako taldea Aloña Mendi izanda, Oñatin izango dira partiduak", azaldu du areto futbol taldeko ordezkari Santi Bernalek.

Zapatu arratsaldean partiduak

Partiduak Zubikoako kantxa berdean izango dira zapatu arratsaldean. 16:30an, Gasteizko Calasanz taldea eta Leioako Ibaraki lehiatuko dira eta horko galtzailearen aurka jokatuko du Aloña Mendik, 17:30ean; 18:30ean, irabazlearen kontra. Bi partidu segidan dituzte, beraz, etxekoek, eta gogor ari dira fisikoa entrenatzen: "Igoz gero, kilometro gehiago egin beharko ditugu asteburuetan, baina jokalariek oso gogotsu daude eta herriko kirol elkartearen babesa ere badugu".



Pake Leku elkartearen zuzendaritza talde berria. PAKE LEKU

Aldare baten bueltako familia baten sentipena

Lehen gehiago ipintzen baziren ere, gaur egun bi aldare ipintzen dira Corpus egunean Oñatiko kaleetan; bata plazan eta bestea Kale Zaharrean. Azken hori atontzeaz arduratzen dira 2000. urtetik Axun Urtaza eta Ane Beitia ama-alabak

Miren Arregi Amasorrain OÑATI

Duela 23 urte, 2000. urteko ekainaren 25eko Corpus egunean ipini zuen lehenengoz Kale Zaharreko aldea Axun Urtazak. "Kale Zaharreko Maritxu Guridi Sabas-ek ipintzen zuen ordura arte, eta testigua hartuko ote nion galdetu zidan", azaldu du Axunek. Urtazatarren etxean Corpus eguna beti izan da egun berezia: "Bittori ahizpak San Migel jantzi zuen hil arte, anaia Joxe apostolu janzten zen eta nik aldarearen ardura hartu nuen". Maritxurekin batera ipini zuen 2000. urte hartan aldea. Alfombra, oihalak, kanderailuak, kandelak, loreak... "Sei krabelin ipintzen zituen Maritxuk; egun, bi dozena ipintzen ditugu", azaldu du. Axunek alaba izaten du lagun egiteko horretan. "Lehenengo urteetan ikusten egoten nintzen, amaren ondoan; gero, ni neu ere hasi nintzen laguntzen. Etxean ardura hori gure sentitzen dugu, badakit egunen baten Maria alabak hartuko duela erreleboa", dio Ane Beitiak.

Otoitz lekua

Plazan egiten den otoitzaz gain, prozesioak egiten duen ibilbidean zehar, parrokoa gelditu eta otoitz egiten duen toki bakarra da Kale Zaharrekoa. Lehenago, Atzeko

kalean eta Kale Barrian ere geditzen ei ziren, baina aldare horiek ez dira gaur egun jartzen. Domeka honetan, beti bezala, Kale Zaharreko aldarean kristoren gorputza ipinita egingo du otoitz Horacio Argarate parrokoak. "Santisimoari erreberentzia egingo diote, lehenengo parrokoak, eta gero, dantzariak. Une horretan beti hunkitzen naiz", dio Axunek.

Prozesio egunaren aurretik

Beitia-Urtazatarren etxeak hilabete lehenago hartzen du Corpus usaina. Ganbaran gordeta izaten ditu Axun Urtazak urte osoan aldea egiten duten ehun, zapi, alfombra, loreontziak eta beharrezko guztiak; hilabeteren faltan Santa Anako mojetara eramaten ditu telak, eta loreontziak Urtxin loradendara. "Mojak arduratzen dira oihalak garbitzeaz; eta lorazainak, loreak ipintzeaz. Bi tokitan berezi tratatzen gaituzte, prozesuaren parte sentitzen gara".

2000. URTEKO CORPUS EGUNEAN ATONDU ZUEN LEHENENGOZ AXUN URTAZAK ALDAREA

Egunean bertan, 09:30erako tokian bertan izaten dituzte ama-alabek beharrezko guztiak. "Berez, ordu horretan hasten dira ospakizunak", dio Ane Beitiak. "Guk aldea prestatzen dugun bitartean pasatzen dira musika banda, txistulariak, hasten dira santuak parrokiara iristen eta orduan hasten dira Corpus eguna hain berezi egiten duten kanpai eta kriskitin hotsak ere", gehitu du Axun Urtazak. 10:00etarako arotzak muntatuta izaten du mahaia eta orduan hasten dira ama-alabak dena atontzen. Behin prozesioa bertatik pasatuta jasotzen dute dena, kaxetan txukun sartu eta etxeko ganbarara eramaten dute berriro. Krabelinak, berriz, kanpo santura eramaten ditu Axunek. "Gertukoei eramaten dizkiet, familiakoei eta lagunei", dio.

Familiaren topaleku

Senitartekoen topaleku bilakatu da Kale Zaharreko aldea eurendako. "Denok inguruan egoten gara", dio Ane Beitiak. "Guretzat oso momentu hunkigarria da eta hamar egun lehenagotik egoten gara eguraldi iragarpenari begira. Orain ere horrela gabilta; gaur, esaterako, ez du domekarako euririk ematen".



Axun Urtaza eta Ane Beitia, aldarean senitartekoekin. A.B



Krabelinak eta Kristoren Gorputza aldarean; atzean, Ane Beita eta Axun Urtaza. A.B



Gualbi
aholkularitza

ZERGA, KONTABILITATE ETA
LAN ARLOKO AHOLKULARITZA

ABOKATUAK
KONTU IKUSKARIAK



Ondo ibili!!

Euskadi Etorbidea, 6 (OÑATI) • 943 78 16 48 • onati@gualbiasesores.com • www.gualbiasesores.com

Anda zaharberrituekin irtengo dira bi irudi

San Frantziskoren eta Ama Sortzez Garbiaren irudiak anda zaharberrituen gainean aterako dira domekako Corpus Prozesioan. Apurtutako piezak konpondu eta koloreak berritu dizkiete. Eta hamabi apostoluek kandela berriak aterako dituzte

Miren Arregi Amasorrain OÑATI

Bidaurretako Monasterioan ematen du urte osoa domekan, ekainak 11, Corpus prozesioan aterako den San Frantziskoren irudiak. Urtero, Corpus domekaren aurreko astean, atondu, anda gainen jarri, lorez apaindu eta kalera ateratzeko gertu uzten dute haren ardura duten andariak, kofradiako kideekin eta Bidaurretako mojekin batera. Irudi pisutsua da, eta luzea, eta egiturara ondo lotzen ez bada arazoak eman ditzake. "Urte baten ez genuen andara ondo lotu eta larri ibili ginen, eroriko zela pentsatu genuen behin baino gehiagotan", dio 30 urtetik gora San Frantziskoren andari dabilen Juan Inazio Irizarrek. Aitarekin hasi zen Irizar lan horretan, eta gero, duela 20 urte baino gehiagotik, kuadrillakoen artean egiten dute. "Okerrena bero askoko egunak dira; pisua du eta bero handiarekin nekeza egiten da", dio Irizarrek. "Prozesioko ibilbidea egitea baino zailagoa egiten da, askotan, irudia Bidaurretatik parrokiara eramatea. Bakardadeko Ama kalean behera joaten gara; malda duen kalea da, eta hori eta Bidaurretatik bertatik ateratzea dira une zailenak", mintzatu dira euren artean andariak.

Anda berriak

Hain justu ere, San Frantzisko aurten prozesioan egongo den berritasunetako baten protagonista da. Haren anda –azpiko egitura– zaharberritu egin dute. "Kolorea galduta zuen eta piezak erori egiten zitzaizkion", azaldu du kofradiako Josu Amondarainek. Gasteizen egin dute zaharberritzea, eta txukun utzi dute kalerako. San Frantziskorenarekin batera, Ama Sortzez Garbiaren –Inmaculada– irudia ere anda zaharberrituaren gainean aterako da domekan, eta aurten hamabi apostoluak kandela berriekin aterako dira. "Prozesioaren biharamunean egiten da irudien eta Corpus prozesioa osatzen duten elementu guztien balorazioa. Berrikuspen horretan erabakitzen da zer berritu behar den hurrengo urtera begira. Izan ere, irudiek kolpeak hartzen dituzte, kolorea galtzen dute, arropak zahartu egiten dira...", dio kofradiako kide Josu Amondarainek.

IA 300 OÑATIAR ARI EDO ARIKO DIRA DOMEKAKO CORPUS PROZESIOAREN BUELTAN LANEAN

Aurreko lanak

San Frantziskoren irudia gertu dago, beste guztiak dauden bezala, eta bakoitza dagokion tokian. San Krispin eta San Krispinianoren irudia San Esteban ermitatik Lazarraga jauregira eroaten dute bi asteren faltan, eta Olabarrietako San Kristobal ere Bidaurretako Monasterioan atondu dute, astean. "Mojek ere gertu dituzte San Migelen, Jesusen eta hamabi apostoluen jantziak, maskarak eta ileordeak, eta domekan joango gara Santa Anako mojegana haien bila. 11:00etan hasiko gara jantzen", azaldu du Amondarainek.

Ia 300 lagun lanean

Aurten, ia 300 lagun ari edo ariko dira Oñatin Corpus prozesiorako lanean. 150 lagunetik gora prozesioan bertan, eta beste horrenbeste prestaketa lanean. Andariak, kofradiako kideak, txistulariak, Musika Bandako kideak, dantzariak, mojak, ile-apaintzaileak, alda-reak ipiniko dituztenak, San Migel jantzeaz arduratuko direnak eta gehiago. Hori guztia eukaristiaren omenezko egun berezia ospatzeko eta idatzizko agirietan froga daitekeenez, 1478ra orduko Oñatin ospatzen zen jaiak segida izan dezan.



Andariak Bidaurretako monasterioan, San Frantzisko prestatzen. M.A

Krixkitin, krauxkitin...
Corpusak Oñatin.
Jai zoriontsuak
oñatiarroí!

OÑATI
dabilen herria



Txistulari taldea, joan den urteko Corpus prozesioan. GOIENA

Asteburu betea dator txistulariendako ere

Egubakoitzean ikastetxeetan eta landa zein kale auzoetan hasi eta domeka arratsaldean plazan egingo dituzten dantzak bukatu bitartean, txistulariek jarriko diote soinua Corpus ospakizunei, dantzarien kriskitin hotsarekin batera

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI
Dantzarien ondoan beti, egubakoitzean hasten dituzte Corpus ospakizunak txistulariek ere, ikastetxeetan eta auzoetan joz. Betea izaten da asteburua euren dako ere. Betea, hiru egunetan ordu eta toki askotan jotzen dutelako; eta betea, sentimenduz, barrutik bizi duten

ospakizuna izaten baita txistulariendako ere.

Bi belaunaldi elkarrekin

Horrela bizi dute, esaterako, Lander Diaz de Gereñu eta Aintzane Agirre txistulariek. Biek, gainera, euren semeekin batera hartuko dute partea aurten ere, eta horrek handitu egiten die

satisfazioa. "Beti bizi izan ditugu Corpusak etxean. Aita kofradiako kide da eta hiru anai-arrebok ibili gara txistua jotzen Corpusetan. Amarendako gauza handia zen hori, eta horixe sentitzen dut semearekin batera ateratzean. Badut esperantza, gainera, urteren batean alaba eta hirurok ateratzeko ere. Er-

lijio puntutik baino gehiago, kulturalki Oñatin duten garrantziagatik bizi ditugu Corpusak, eta ederra da horko parte izatea", dio Agirrek. Iritzi berekoa da Diaz de Gereñu ere: "30 bat urte dira txistua jotzen ikasten hasi nintzela. Askotan jo dut Corpusetan, azken bietan semea ondoan dudala, gainera, eta horrek barrua mugitzen du, bai. Aurten ere aterako gara".

San Sebastianen atzetik

Jai handia domekan izan arren, zapatu goizean plazan egiten den ekitaldiak bereziki hunkitzen du Diaz de Gereñu: "Finkatzen joan den ekitaldia da. Urtetik urtera ikusle kopura handitzen joan da eta herritarren artean zabalduta izan da hori. Domekako prozesioa da, agian, iragartzen dena, baina zapatukoak berez hartu du indarra, eta horrek asko poztu nau".

San Migel parrokiako kanpandorreko kanpaiek 09:00ak jotzen dituztenean hasten da zapatuko dantza, eta ordurako plazan egoten dira txistulariak eta dantzariak. Domekan, berriz, goiz-eresia eginez hasten dute eguna txistulariek. Irudiak parrokiara eramaten laguntzen dute gero, baita San Migel, kofradeen eta apostoluen ondoan joan ere Santa Anatik elizarako bidean, eta korrika joaten dira gero parrokia atzeraino, meza ostean irudiekin batera prozesio barruan sartzeko.

San Sebastianen irudiaren ostean joaten dira prozesioan txistulariak, eta, normalean, kanpotik, Legazpitik, etorritakoekin batera osatzen dute taldea bertakoek. *Corpusetako zortzikoa* jotzen egiten dute ibilbidea, dantzariak aurrera eta atzera ondolik pasatzen direla. Euren jarduna zaindu eta berriz hasi jotzen. Ezin zenbatu ere egin zenbat aldiz jotzen duten pieza bera. Etenalditxoak ere egiten dituzte, eta bereziki eskertzen dutena Kale Barritik behera datozela egiten dutena izaten da. Etxeberrira jatetxean beti izaten zuten prest edatekoa dantzariendako eta txistulariendako. Hura itxi zutenean Arrano tabernak eskaini zien zerbitzu hori ematea, eta, harrezkero, haren parean gelditzen dira zerbait edan eta minutu bateko atsedena hartzen. Domeka arratsaldean plazan egiten diren dantzetan ere, badira urteak soka-dantzarako dantzariekin batera ateratzen direla.

Aurten ere, egubakoitzetik domekara, txistulariek jarriko diote soinua Corpus ospakizunari, dantzarien kriskitin hotsarekin batera.

CORPUSETAKO ZORTZIKOA DA TXISTULARIEK EGUN HAUETAN JOKO DUTEN PIEZA NAGUSIA



Ondo ospatu eguna!

AKER • ETXE AUNDI • GALIZIA • GAROA • HELMUGA
IZARRAITZ • ONA • SORALUZE • TXOPEKUA • URTIAGAIN



Iazko korpus eguneko irudia udaletxeko balkoitik aterata. MIREN ARREGI

Herritarrentzat ospakizun berezia dela nabari da


Oñatin Coprus eguna datorrela nabaritzen dutenak merkatariak izaten dira. Arropa denda, ile-apaindegi, taberna zein jatetxeek nabaritzen dute mugimendua erreserbetan. Ohiturak indarra galdu duen arren, nabari da egun berezia dela

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Corpus eguna gorritz markaturiko eguna da oñatiarrentzat. Urteetan zehar tradizio bihurtu dira dantza taldekoen eman-kizunak eta domeka goizeko prozesioa, besteak beste. Jendeak ez du aukerarik galtzen eguna ospatzeko hainbat modutan, eta horrek, nola ez, merkatariengan eragina du,

eta haiek ere nabaritzen dute Corpusak datozela.

Egun berezirako jendea dotore irten ohi da kalera, etxeko arropa berezienak jantzita edo une horretarako propio erositakoeekin. Eta, arropa erosteaz gain, ile-apaindegira joaten direnak ere badaude, dotorezia hori domeka goizean herriko kaleetan erakusteko.

Corpusak familian edo lagunartean ospatu ohi dute askok; jan-edanean, betiere. Prozesioaren ostean, tabernan edateko zerbait hartu, familia edo lagun talde osoa batu, eta, ondoren, denak batera jatetxera bazkaltzera eguna borobiltzeko. Corpus eguna ospakizuna da, baina, ospakizunerako, lan egin beharra dute batzuek.



MARGARI BASTARRIKA
IZARRAITZ TABERNAKO JABEA

"Bezperatik nabari da egun berezia dela. Zapatuan ere jende ugari aritzen da, baina gure kasuan, batez ere, Corpus egunean goizean aritzen gara gelditu gabe; eguerdi-arratsalde aldera jaitsi egiten da jende kopurua, baina ordura arte gelditu gabe aritzen gara. Normalean, ardo zuriak izaten du arrakasta handien goiz horretan, eta etengabe ibiltzen gara pintxoak ateratzen".



BEGOÑA ETA ARANTXA MARKULETA
MARKU ARROPA DENDA

"Nabaritu dugu mugimendua. Ez dakigu Corpusak direlako edo eguraldi ona hasi delako den. Azken hamarkadan asko aldatu dira gauzak. Jendea propio etortzen zen Corpus egunerako arropak erostera. Orain, berriz, badirudi ez duela horrenbesteko garrantzirik egun horrek. Lehen, ohitura zen arropak estreinatzea egun honetan, eta egongo da oraindik bateren bat hori egiten duenik".



IGONE UGARTE
ILE-APAINZAILA

"Dudarik gabe, urtero nabaritzen da Corpusak datozela. Egia da gaur egun jendea lehenago ibiltzen dela txanda hartzen duela urte batzuekin alderatuz; aldaketa nabari da. Era berean, badirudi gazteei ez zaiela hainbeste axola egun hori, baina ez da horrela, denek nahi dute dotore egon egun horretan. Ordu gehiago ez ditugu sartzen, baina aste hauetan agenda beteta izaten dugu".



JESUS MARI ARSUAGA
TXOPEKUA JATETXEOKO JABEA

"Bezere batzuek urte batetik besterako erreserbak egiten dituzte. Beste batzuk hiru hilabete lehenago hasten dira erreserbak egiten. Azken egunetan ere izan ditugu deiak, eta beste lau edo bost jantoki betetzeko jendea izango genuke. Normalean, familiak izaten dira etortzen direnak. Menu berezia izan dugu beste urte batzuetan, baina orain jendeak nahiago du norberaren menua egin".

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.

Ondo pasa Corpus jaixak!

ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

amaia igartua ARKITEKTURA

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57 * amaia@aiarkitektura.com



Bi lasterkari Eskoriatzako helmugara iristen, irribarretsu, 2019ko edizioan. GOIENA

Badator gautxoriendako neurrira egindako proba

MENDI LASTERKETAK Zapatuan egingo dute Gabez Takarraren lasterketaren hamaikagarren edizioa, Eskoriatzan. Guztira, 141 parte-hartzaile izango ditu, oinezkoak eta korrikalariak batuta. Aurten 1.200 euro banatuko dituzte saritan

Xabier Urzelai Atxa ESKORIATZA Zapatuan egingo dute Debagoienan gauaz egiten duten mendi lasterketa bakarra: Gabez Takarraren. 89 parte-hartzaile batuko dira plazan antolatzaileek proposatutako 25 kilometroko ibilbidea oinez egiteko asmoarekin. Eta 22:00etan beste 52 lasterkari hasiko dute proba, korrika.

Sari ekonomikoa egongo da Oinezko modalitateak ez du lehiaketa izaerarik izango, baina korrikakoak bai, eta, gainera, berritasunetako bat da irabazleendako aurten 1.200 euro izango direla saritan: "Lasterketa berezia da Gabez Takarraren. Ezaugarri jakin batzuk ditu. Lehiatzeko asmoarekin etortzen direnendako aproposa da, baina parte-hartzaile gehienak bestelako asmoekin etortzen dira; alegia, lasterketa gauaz egiteak duen xarmak erakartzen ditu, eta ondoren herrian egoten den giroak. Baina bai, aitortu behar

dugu badituela kontrakotasunak ere. Batetik, korrikalariak 22:00ak arte egon behar izaten dute lasterketa egiteko zain, eta ez daude horretara ohituta, probak goizetan egiten direlako. Eta horrekin batera, ulertzen dugu herriko korrikalariak helmuga gurutzatzerakoan etxean dutxa azkar bat hartu eta kalera etortzen direla osterera ere, plazan egoten den giroaz gozatzera. Baina kanpotik datozen korrikalariak goizaldean autoa hartu behar izaten dute etxera bueltatzeko, eta ulertzen dugu batzuek ez dela erosoa", adierazi du antolatzaile lanetan dabilen Julen Ezeizak. Baina, hain zuzen, ezaugarri horiek egiten

89 PARTE-HARTZAILEK OINEZ EGINGO DUTE IBILBIDEA ETA 52 ATLETA, BERRIZ, KORRIKA

dute Eskoriatzako hitzordua berezi.

Gizonak eta emakumeak

Azken urteotan antolatzaileek Gabez Takarraren oinez egiteko ematen duten aukerari esker parte-hartze datuak asko berdindu dira, bihar gauean mendian ibiliko diren gizonen kopurua bestekoa izango da eta emakumezkoena -72 gizonenak dira eta 69, emakumezkoak-. Nabardura batekin, baina: "Korrikako modalitate emakumezko gutxi animatu dira; gehienek oinez egingo dute ibilbidea".

Hala, zirkuituan ez da aldaketarik egongo. Herriko plazaetik abiatu eta Asentsioko tonorrera joango dira lehenengo, handik berriz ere herrigunera jaitsi eta Eskoriatzako mendi kuttuna den Atxorrotxerako bideari ekin beharko diote, lasterketako puntu goreneraino iritsi arte, Makatzgain tonorrera. Eta handik herrigunera bidea hartuko dute.



Oihana Kortazar eta Emilie Forsberg, azken metroan. ESPAINIAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Mundukoan Kortazar zazpigarren, Forsberg-i esprinta irabazita

MENDI LASTERKETAK Bihar, zapatua, da Ibai Larrea antzuolarraren eta Malen Osa oñatiarraren txanda

X.U. ARRASATE

Malen Osa oñatiarra, Ainara Urrutia aretxabaletarra, Oihana Kortazar elgetarra eta Ibai Larrea antzuolarra Innsbrucken (Austria) daude egunotan, Munduko Txapelketan. Espainiako hautatzaileak 40 mendi lasterkari aukeratu behar izan ditu, duela urte erdi Thailandian eskuratu zituzten zazpi dominen marka hobetzeko helburuarekin, eta, esan moduan, Debagoieneko lau atleta daude aukeratu horien artean.

Eguaztenean hasi zuten txapelketa, eta atariko proban, kilometro bertikalean -zazpi kilometro eta 1.020 metro-, Malen Osa 42. postuan sailkatu zen. Oso igoera azkarra izan zen, eta Osak 55.56ko marka egin zuen. Oñatikoak bizpahiru egun izango ditu indarrak errekupezko, oraingo zapatuan (14:00) izango du eta hurrengo lasterketa, hamabost kilometroko proba. "23 urte azpiko kategoriarik ez dagoenez, elite mailakoekin hartuko dut parte, eta mundu mailako erreferenteak izango ditut hor. Egia esan, ikastera noa Munduko Txapelketara; ez dut helburu konkreturik, daukadan onena eman eta esperientzia bizi izatera noa", adierazi zuen Osak joan den astean.

Kortazarrek eta Urrutiak, atzo Oihana Kortazar elgetarrak eta Ainara Urrutia aretxabaletarrak, berriz, atzo izan zuten 45 kilometroko lasterketa. Urrutia 45. postuan helmugaratu zen (5.51.05) eta Oihana Kortazar hamar one-

nen artean ibili zen borrokan. Atzetik aurrerako lasterketa eginda, zazpigarren postua jokoan zegoenean elgetarrak azken kilometroetan lehia estua izan zuen Emilie Forsberg-ekin. Lasterketak agoniako amaiera izan zuen, bost ordu pasatxo mendian korrika ibili eta gero esprint estuan amaitu zuten eta proba. Leher eginda iritsi ziren biak, baina metro erdiagatik elgetarra izan zen bietan azkarrena (5.18.45).

Larreak ere zapatuan

Malen Osak bihar, zapatua (14:00), izango du hamabost kilometroko lasterketa, eta iazko irabazle Ugandako Rebecca Cheptegei da faborito nagusia. Gizonen artean ere beste debagoiendar bat izango da, gizonenak bakarra: Ibai Larrea antzuolarra. Haiek ere emakumezkoen ibilbide berbera izango dute (12:00), hamabost kilometroko distantzian. Iazko Munduko Txapelketan podiuma erabat afrikarra izan zen, eta iazko txapeldunordea izango da irteera puntuan: Patric Chemutai.

Lasterketa guztiak *streaming*-ez jarraitu daitezke, *innsbruck-stuba2023.com* helbidean, eta YouTube ere bai.

ZAPATUAN MALEN OSA ETA IBAI LARREA 15 KILOMETROKO LASTERKETAN IZANGO DIRA, KLASIKOAN

Erlojupeko lana izango dute etzi San Antonion

TXIRRINDULARITZA Domekan Gipuzkoako eta Euskadiko kadete mailetako txapelketak jokatu dituzte. Emakumezkoetan Igamo Packaging taldeko neskek lehiatuko dira eta gizonezkoetan, Bolintxo Okindegia-Lanakoak eta Ulmakoak

Xabier Urzelai BERGARA

Kadete mailako ziklistak erlojupeko modalitatean lehiatuko dira domekan (17:00), San Antonio sariaren 86. edizioan. Eta hitzordua ez da edonolakoa, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak daude eta jokoan. Lokatzakoek Bergarako San Antonio auzoaren eta Antzuolaren arteko errepide zatian prestatu dute 7,2 kilometroko zirkuitua.

Debagoieneko parte-hartzea zabala izango da. Batetik, Oñatiko Ulma taldeko kadeteak izango dira, zortzi inguru. Eta bestetik, Bergarako Bolintxo Okindegia Lanakoek ere prestatu dituzte euren ziklistak. Eta hor herri askotako ordezkariak dituzte. Arrasateko Iñaki Plaza eta Izortz Llodio, Antzuolako Ekaitz Labaien, Aretxabaletako Manex Larrañaga eta Bergarako Markel Eguren irteera puntuan izango dira. "Unai Ormaetxea aramioarra da, eta hura ere lasterketan egongo da. Ez du Gipuzkoako txapelketa jokatzerik, baina Arabako hautatzaileak Euskadiko Txapelketarako aukeratu du", adierazi du Iñigo Larrañagak.

Bada, maila politeko ziklistak batuko dira bertan, eta, Ion Unamoren esanetan, faboritoeta bat joan den astean Oñatin



lazio San Antonio sarian ere erlojupekoa egin zuten; irudian, irteera. I.SORIANO

gailendu zen Eñaut Urkaregi (Danena) da: "Iaz Bergaran hark irabazi zuen erlojupekoa, eta bistan da aurten ere sasoi onean dagoela. Gainera, bigarren urtea du kadete mailan. Gipuzkoako txapelketa irabazteko faboritoa da eta Euskadikoan ere aurrean ibiliko da, ziur".

Igamo Packagingekoak, gertu

Emakumezkoetan ere Igamo Packagingeko neskek gertu daude. "Itsaso Askasibar elgetarra eta Izar Eskibel eta Maddi Oleaga oñatiarrak izango dira proban.

Arantxa Anduaga min hartuta ibili da; ea lasterketan egon daitezkeen", adierazi du Iker Sanchez entrenatzaileak.

Errepide mozketak

Txirrindularitza lasterketa dela eta bide mozketak izango dira Bergarako San Antonio kaletik Antzuolara bitartean, eta antolatzaileek auto gidariak Deskargako saihebidetik desbideratuko dituzte. Antolatzaileek aurrekusten dute lasterketak bi ordu iraungo duela, 17:00etatik 19:00etara.



SAIOA KARATE TALDEA

Karate erakustaldia Uarkapen

Karate erakustaldia egingo dute Saioa Karate Taldeko ordezkariak bihar, zapatua (17:00, Uarkape). Borroka arte hori herritarren aurrean erakustea da asmoa. Bestalde, klubeko Xabier Varteniuc, losu Madinabeitia eta Carlos Sanchez –argazkian– sentsazio onarekin itzuli ziren maiatzaren 27an Iruñean jokatuako San Juan Donibane txapelketatik.

FUTBOLA Gipuzkoako Federazioak Javi Azpiazu sarituko du

Gaur, egubakoitza, banatuko dituzte Gipuzkoako Futbol Sariak, Andoainen, eta Javi Azpiazuk Boluntarioaren Saria jasoko du, bost hamarkadatan zehar Aloña Mendi futbol taldean egin duen lanagatik. "Hautagaiak aurkezteko aukera eman zutenean, Javierren ondoan egon garenok ez genuen inolako zalantzarik izan", adierazi dute klubetik.

PILOTA Ibarreko lau pilotari izango dira San Fermin torneoan

San Fermin txapelketan izango dira Leire Galeano antzuolarra, Maialen Osés eta Madalen Etxegarai oñatiarrak eta Arrate Bergara bergarra. Galeanoren bikotekidea Amaia Aldai izango da, Etxegarai eta Bergarak elkarrekin jokatu dute eta Osesekin batera Olatz Arrizabalaga arituko da. Finala Labriten izango da, uztailaren 8an.

EKINEZ JAIALDIA

'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN

EKAINAREN 12AN, ASTELEHENA, 18:00/20:00 ETA 22:00

BERGARAKO MUSIKA JAIALDIAREN GAINEKO ERREPORTAJE ZABALA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Ekinez musika elkarteko Julen Iñarra eta Oier Aperribai, atzo, Ekinez jaialdirako prestaketa lanak atzean dituztela. XABI URZELAI

Bigarren parteen ilusioa eta zirrarara

Bergarako Ekinez musika jaialdiaren bigarren edizioa egingo da gaur eta bihar Labegaraietan, iazkoarekiko hainbat berrikuntzarekin; iaz baino hamar talde gehiago zuzenean, karpa bana izango duten bi gunea eta beste hainbat aldaketa egongo dira

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Heldu da Bergarako Ekinez musika jaialdia, Agorrosin futbol zelaitik Labegaraietara. Bi egunetan datu esanguratsuak utziko ditu jaialdiaren bigarren edizioak: askotariko 28 musika talde zuzenean, karpa bana izango duten Ekinez eta Eginez gunek, jana eta edana izango dituen atsedeen-gunea, marka alternatiboen azoka, kanpalekua, furgoneta eta autokarabandako gunea eta 3.000 lagun baino gehiago elkartzeko aurreikuspena.

Lanpetuta bezain gogotsu

Ekinez musika elkarteko kide Julen Iñarrak onartu du azken egunotan bereziki lanpetuta eta urduri egon direla, halako jaialdi bat antolatzeak "hainbat buruhauste" eragiten dituelako, baina proportzionalki gogotsu

eta ilusioz daudela dio: "Ateak zabaltzeko desiratzen gaude. Ekinez musika elkartetik gusatuko litzaiguke gogora ekartzea irabazi asmorik gabeko jaialdia dela. Ekinez ez dugu guk bakarrik egiten; Bergarako Udala dugu laguntzaile, eta, horrez gain, sekulako bultzada igarri dugu herriaren partetik. Ilusioa ez dugu guk bakarrik, herritik ere sentitu dugu ilusio hori. Horregatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu bereziki boluntario lanetan arituko diren guztiei; denon artean aterako dugu jaialdia aurrera".

Iñarrak aitortu du "erronka handia" dela halako ekimen bat antolatzea, baina sinistuta dago dena ondo irtengo dela, orokorrean: "Lantaldeko kide batzuk sektore profesionalekoak izan arren, lotu beharreko gauza asko dira. Gure herrian antolatzen

ari gara eta gauzak ondo egin nahi ditugu, eta horretarako tresnak baditugu. Baina bai, azken orduko urduritasunak kudeatzeko lanetan ere ari gara".

Eskaintza nabarmen zabaldu

Ekinez jaialdiaren lehen edizioan punk eta oi! doinuak lantzen zituzten taldeak izan ziren protagonista. Aurten antolakuntzak "ahalegin berezia" egin du beste estilo batzuei ere tokia egiteko, eta, horregatik, kiroldegi atzeko Eginez gunean musika urbanoa izango da nagusi, salbuespenak salbuespen. 28 pro-

"EKINEZ EZ DUGU GUK BAKARRIK EGITEN, HERRITIK SEKULAKO BULTZADA JASO DUGU"

JULEN IÑARRA, ANTOLATZAILEA

posamenen artean baten bat azpimarratuko duten galdetuta, antolakuntzako Oier Aperribaik dio bigarren edizio honetan ere "asko" direla "bereziak" diren taldeak: "Ahalegin berezia egin dugu talde bereziek jo dezaten aurten ere. Adibidez, power-popa lantzen duen Parisko Alvida laukoteak ikusle bat baino gehiago harrituko ditu; ska doinuak ere izango ditugu aurten, Skabidean taldearekin... Eskaintza zabalagoa da aurten. Horrez gain, aipatu nahiko nituzke lagata zuten bi talde, nire sorkuntzan pertsonalki asko eragin didatenak: Brigada Criminal eta Enboscada". Horrez gain, beste talde batzuk ere aipatu ditu Aperribaik: "Kaleko Urdangak taldearen zuzeneko latza izango dugu bigarren edizioan ere. Gainera, azkenaldian agertokietara itzuli diren Doubling Boys eta Hell Beer Boys taldeek ere erakutsiko dute sasoiko itzuli direla...".

Kontuan hartu beharrekoak

Hainbat dira kontuan hartu beharreko oharrak eta iazko edizioarekiko nobedadeak. Hasteko eta behin, kokalekua Labegaraietan izatera eta bizilagunak oso gertu egongo direla jakinda, bi egunetan 01:00etarako denak egon beharko du amaituta. "Bizilagunak ahalik eta gutxien oztopatu nahi ditugu, eta, aldi berean, jaialdiari eguneko nortasuna eman. Eguneko plan bat proposatzen dugu, publiko guztiei bideratuta", gaineratu du Iñarrak. Horrekin batera, antolakuntzatik eskatu diote publikoari bizilagunak errespetatzeko eta jarrera zibikoa izateko; besteak beste, gogoratu dute bengalak edota edozein piroteknia elementu erabiltzea debekatuta dagoela.

Amilotx taberna ondok sartu beharko da jaialdira (Ikus hurrengo orrialdeko mapa); gaur, egubakoitza, 17:30ean irekiko dira ateak, eta bihar, zapatua, 11:30ean. Eginez gunea gaur 19:00etan irekiko dute eta bihar, berriz, 16:00etan.

"AHALEGIN BEREZIA EGIN DUGU TALDE BEREZIEK JO DEZATEN AURTEN ERE"

OIER APERRIBAI, ANTOLATZAILEA

Bestalde, beste edozein jaialditan bezala, 16 eta 18 urtera artekoek gurasoen ziurtagiria beharko dute eremura sartzeko eta 16 urtetik beherakoek heldu batekin sartu beharko dute; ezin izango da kanpoko edaririk sartu eta adingabeek debekatuta izango dute jaialdian zehar alkohola erostea. Edalontzi berrerabilgarriak euro baten truke eskuratu ahaliko dira.

Bi gunea nagusiez gain, atsedeen-gunea ere egongo da, bi janari-furgonetarekin eta herriko elkarteek kudeatuko duten janari-txosna batekin.

28 taldeen zuzeneko ordutegiak

EKAINAK 9

EKINEZ GUNEA

- 18:00 Rebel Noise
- 18:55 Odolkiak Ordainetan
- 19:50 Tatxers
- 20:50 Skabidean
- 21:55 Brigade Loco
- 23:00 Añube
- 00:10 Biznaga

EKINEZ GUNEA

- 19:00 Ballon Frame
- 20:30 Hofe x 4:40
- 22:00 Denso + Mutiko&Tatta
- 23:30 Brava

EKAINAK 10

EKINEZ GUNEA

- 12:00 Letagin
- 13:10 Against You
- 14:20 Perlata
- 15:40 Kaleko Urdangak
- 18:00 Sofokaos
- 19:20 Doubling Boys
- 20:30 Hell Beer Boys
- 21:50 Enboscada
- 22:50 Brigada Criminal
- 00:10 Bull Brigade

EKINEZ GUNEA

- 16:00 Harria
- 17:30 Alvilda
- 19:00 Txiltxoko
- 20:30 La Furia
- 22:00 Lamia Mari
- 23:30 Maixa&Malakais

Kanpalekua Miguel Altunan

Aurtengo beste nobedade aipagarri bat da jaialdiak kanpaleku propioa izango duela. Iaz hutsune hori antzeman zuten antolatzaileek eta aurten kanpalekuaren aldeko apustua egin dute; Miguel Altuna Lanbide Heziketaren egoitza berriaren ondoko zelai baten egokitu dute. Bi metro koadroko 80 partzela jarri dituzte, ziztu bizian saldu zirenak. Gaur irekiko dute kanpina jartzeko eremua, 13:00etan, eta domekara arte 15:00ak arte egongo da zabalik. Kanpalekuaren eremuan komunak egongo dira eta dutxa zerbitzua Labe-garaietako kiroldegian izango dute bertako erabiltzaileek; dutxak erabilgarri egongo dira zapatuan eta domekan, 09:00etatik 12:00etara.



Kanpalekua Miguel Altuna berriaren ondoko zelai baten jarri dute. E.A.

Aparkalekuak eta trafikoa

Bergarako Udalak ere bestelako ohar batzuen berri eman du: kiroldegi atzeko aparkalekua itxita dago eguaztena ez-kero; Ibarako aparkalekua atzo itxi zuten eta Ibarra kalean dauden aparkalekuak gaur itxiko dituzte; gaurtik jaialdia amaitu arte trafikoari moztuta egongo da Ibarra kalea -barruko kalea, jaialditik gertuen dagoena-; bestalde, Ozaeta kalearen ondoko aparkalekua -lehengo Candy enpresarena zena- argiztatu egingo da behin-behineko fokuekin gaur eta bihar gauean; eta kiroldegia astelehenetik aurrera erabili ahalko da normaltasun osoz. Udaletik adierazi dute eskura dituzten "baliabide guztiak" erabiliko dituztela jaialdiaren eta auzoaren arteko elkarbizitza "ahalik eta eramangarriena" izan dadin.

Autobusak eta furgoneta-gunea

Euskal Herritik eta Espainiatik jendea etorriko denez, Telleria kalean autokarabanendako eta furgonetendako gune bat egokitu dute, eta bailarara begira Eibar-Eskoriatza eta Antzuola-Elgeta lineetan autobus zerbitzua indartu egin dute Lurraldebusen bitartez.

INDARTSU DATOR 2023KO EKINEZ: 28 TALDE, 3.000 BAT LAGUN, BI KARPA, KANPALEKUA...



Oñatiko Letagin egurrean, Danbakako zuzenekoan. IMANOL SORIANO

Letagin taldeari jarraipen berezia

Danbaka-Ekinez saria irabazi zuen Oñatiko Letagin taldea "oso gogotsu" dago jaialdian jotzeko, zapatuko lehen kontzertua izango bada ere. Laukote oñatiarrarekin erreportaje berezia egingo du Goienak, taldea bera eta jaialdi berezia barrutik ezagutzeko.

Bi gune, eta hainbat nobedade

ITURRIA: EKINEZ



- 1 Sarrera
- 2 EGINEZ gunea
- 3 EKINEZ gunea
- 4 Azoka
- 5 DJ Set + Barra
- 6 Foodtrucka
- 7 Skate erakustaldia
- 8 Atsedene-gunea
- 9 Komunak
- 10 Barrak

Goienakideen txokoa

EKAINEKO SARIAK

Liburu-irakurgailua
Kobo Nia e-booka

Parte hartzeko sariaren izena: ebook



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org
Datuak: Merkataritza produktuak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.
*goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzelekin artean egingo da zozketa. Inbentarioa: 09/06/2023 12:00. Inbentarioaren zuzenbidea: 688 69 00 07 zenbakia. Inbentarioaren zuzenbidea: 688 69 00 07 zenbakia. Inbentarioaren zuzenbidea: 688 69 00 07 zenbakia. Inbentarioaren zuzenbidea: 688 69 00 07 zenbakia.

Irabazi bi lagunendako otordua

MAIALDE JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: ekainak 13

☎ 943 25 05 05 ✉ goienakide@goiena.eus 📱 'Goiena app'-a / zozketa atalean.

📞 GOIENAKIDE Jaietxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus





DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

ESKER ONA



Jose Ignacio Sasiain Larrañaga 

2023ko ekainaren 3an hil zen, 65 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko ekainaren 9an.

ESKER ONA

Ana Maria Alberdi Badiola 


'Maritxu Egileorkua'
Jose Antonio Arregiren alarguna


2023ko ekainaren 2an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Bergaran, 2023ko ekainaren 9an.

ESKER ONA



Valentin Elorza Bergaretxe 

2023ko ekainaren 2an hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aramaion, 2023ko ekainaren 9an.

OROIGARRIA




Jose Ignacio Sasiain Larrañaga 


2023ko ekainaren 3an hil zen, 65 urte zituela.

Pozik oroitzu zure bizitzan izan garela gu parte ohore haundiz, bihotz-bihotzez, agur, Jose Ignacio, betirarte.

Zure lagunak: Francis eta Eli, Javi eta Alicia, Iñaki eta Kontxi. Bergaran, 2023ko ekainaren 9an.

OROIGARRIA



Moises Arriaran Iñarra 

Angiozar Bailarako alkate ohia

Hiru aldiz alkate betirako ohore

Angiozarko herriak esker onez.

Angiozar Bailarako Batzarra. Angiozarren, 2023ko ekainaren 9an.

OROIGARRIA


Jesus Arregi Irastorza 

2013ko ekainaren 7an hil zen.

Hegoak ebaki banizkio nerea izango zen, ez zuen aldegingo. Bainan, honela ez zen gehiago txoria izango.

Antzuolan-Urretxun, 2023ko ekainaren 9an.


OROIGARRIA

Carlos Garcia Rodriguez 

Ikastolako gurasoa


2023ko ekainaren 2an hil zen, 29 urte zituela.

Une triste hauetan gure besarkada beroena familiarari.



Arizmendi Ikastolako langile, guraso eta kolaboratzaileak. Leintz bailaran, 2023ko ekainaren 9an.

OROIGARRIA


Carlos Garcia Rodriguez 

2023ko ekainaren 2an hil zen, 29 urte zituela.

Eskerrik asko eguzkia beti irteten dela erakusteagatik. Goazen lekura goazela, zuk utzitakoa gurekin eramango dugu. #estamosjuntos

Andoni, Amaiur eta Xiana. Eskoriatzan, 2023ko ekainaren 9an.

OROIGARRIA

Francisca Arana Pagalday 


Jesus Jauregiren alarguna

—Goian bego—

Agur, amatxo maitia! Zu guretako dana izan zara eta gure oroimen eta bihotzean biziko zara betiko. Espero dugu bidai luze honetan pakea eta zoriontasuna zure bidelagunak izatea. Besarkada haundi bat. Gero arte!

Jauregitarrak. Arrasaten, 2023ko ekainaren 9an.

URTEURRENA


Juan Ignacio Alcorta Gorosabel 

2022ko ekainaren 9an hil zen, 77 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, ekainaren 10ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.

Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi. Oñatin, 2023ko ekainaren 9an.

URTEURRENA

Marixol Garitano Arrieta 

Urteurreneko meza domekan izango da, ekainaren 11n, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokiari.

—
Zure barne indarrarekin lortzen zenuen eguzkiak ilargia besarkatzea.

Bergaran, 2023ko ekainaren 9an.

Oroilore BABELA

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Gari deitu zuzenean edo, nahizago baxetur, jakinarazi zuen asaguru-kospainiari gurekin nahi dituzela agurtu nahi dituzene.

Marioven, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko bala dute horietakoak. Guk baditugu gorleku zuzentzeko, gure beharri ducenerako.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

ASTE A GOIENA TELEBISTAN

**ORBEL TALDEAREN ZUZENKOA**

Baionan sortutako post-rock taldeak Kooltur Ostegunetan egindako emanaldia osorik entzuteko aukera.

'Kooltur Ostegunak' Egubakoitza, 21:00 eta 23:00

**GABEZ TAKARRAREN LASTERKETAREN LABURPENA**


Harmailatik saioan erakutsiko dute Eskoriatzarako lasterketaren irudi eta adierazpen onenak, Xabi Urzelaireren eskutik.

'Harmailatik' Astelehena, 21:30 eta 23:30

**OÑATIKO CORPUS JAIK**

Egubakoitzetik domekara egingo dituzte ospakizunak Oñatin, eta han jasotako irudiak erakutsiko dituzte Hemen Debagoiena saioan.

'Hemen Debagoiena' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00

**'ANIMALIA ETA KAKA ARTEAN' ERREPORTAJEA**

Gorotzen ezaugarriak ezagutzeko aukera, eta baita astoen eta ahuntz azpigorrien ezaugarriak ere, Txomin Madinarekin.

'Landara' Martitzena, 21:30 eta 23:30

**MIREN NARBAIZARI ELKARRIZKETA**

Joni Ubeda kazetariak Eibarko musikaria elkarrizketatuko du. Haren azken lanaz egingo dute berba.

'Elkarriketap' Eguaztana, 19:30.



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 9**OÑATI Corpus dantzak**

Goizean ikastetxeetan eta 16:30ean Kasablanka, Ugarkalde eta San Martin auzoetan.
Oñatin, 09:00etan.

ESKORIATZA Luis Ezeizaren jaiak

Tailerrak, jolasak, bazkaria, puzgarriak eta apar festa, besteak beste, ikasturtea agurtzeko.
Luis Ezeizan, 10:00etan.

OÑATI Bisita gidatuak

Gipuzkoako Artxibo Historikoan 10:00etan eta 17:30ean, euskaraz; eta 12:00etan eta 16:00etan, gazteleraz. Izena emateko: 943-41 50 60 eta ahpg-gpah@gipuzkoa.eus.
Artxiboan.

BERGARA San Martin eskolako ikasturte bukaerako jaiak

Askotariko ekintzak
Eskolan, 16:00etan.

OÑATI Odol ematea

Aurrez hartu behar da ordua: 943-00 78 84.
Enpresagintzan, 16:30ean.

OÑATI Bertso-paper lehiaketako sari banaketa

Lan onenak sarituko dituzte.
Gaztelekuan, 17:30ean.

BERGARA Ekinez jaialdia

Lehen eguna. Egitaraua osorik 34. orrialdean.
Labegaraietan, 18:00etan.

BERGARA KoopFabrika Hegoaldetik programaren aurkezpena

Irekia.
Ehunduren lokalean, 18:00etan.

ARRASATE Hizkuntza Anitza kontzertua

Arrasate Musikalekoekin.
Musika eskolan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Txus & Txu' antzezlanak

Trokolo Teatrotan eskutik, 7x7 Kultura Kanean ekimenaren baitan. Debalde.
Herriko Plazan, 19:00etan.

ARRASATE Gitarra kontzertua

Arrasate Musikalekoekin.
Monterron parkean, 19:00etan.

ARAMAIO Twin Room taldea

Bikote gasteiztarraren retro doinuak entzungai.
Sastiñan, 19:30ean.

ZAPATUA 10**OÑATI Corpus dantzak**

Plazan hasiko dute kalejira.
Foruen plazan, 09:00etan.

ARAMAIO Parke eolikoari buruzko deliberazio jardunaldia

Irekia, herritar guztiendako.
Eskolan, 09:30ean.

ARRASATE Arrasate Musikalen jaialdia

10:00etan, gaitarien kalejira; 11:00etan, Debagoieneko musika eskolen emanaldiak; 13:15ean, Gariband taldearen kalejira; 14:15ean, paella-jana; eta 19:00etan, Banana Shake eta Arrasate Musikaleko banda eta The Potes.
Arrasaten.

ARETXABALETA Kurtzebarri eskolaren jaiak

10:30ean, Altxorraren bila; 11:30ean, trikitaliak; 12:00etan, batukada; 13:00etan, Eguzkiari agurra ikuskizuna; 14:30ean, bazkaria; 16:00etan, jolasak eta tailerrak; eta AZ Gaubelak taldea.
Aretxabaletan.

ARRASATE Angeles Maestoren hitzaldia

Askatasuna eta Giza Eskubideen Aldeko herri plataformak gonbidatuta.
Kulturaten, 10:30ean.

ARRASATE 'Arrasate, hiribildu bizia' bisita gidatua

Izenak emateko: Arrasate.eus edo 943-25 05 00.
Herriko Plazan, 11:00etan.

BERGARA 'Bergarako San Juan auzoa ezagutu' bisita gidatua

Santikutz auzunea ezagutzeko.
Erreka enpresaren ondoan, 11:00etan.

ARETXABALETA Zirku tailerrekoen ikuskizuna

Ikasturtean ikasitakoa eskainiko dute.
Arkupen, 11:30ean.

BERGARA Ekinez jaialdia

Egitaraua osorik 34. orrialdean.
Labegaraietan, 12:00etan.

ANTZUOLA Ondarreko ginkana

Aiastui txirindulari elkartearen eskutik
Herriko Plazan, 12:00etan.

BERGARA Elosuko Otaba jaiak

15:00etan, jaien hasiera; 16:30ean, mus txapelketa; eta 21:00etan, bertso afaria.
Elosuan.

BERGARA San Antonio jaiak

16:30ean, zezentxoak eta poneyak; 18:00etan, buruhandiak; 18:30ean, sardina-jana; 19:00etan, musika eta 20:00etan, karaokea.
San Antonio auzoan.

OÑATI 'Ipar-zirkoa' ikuskizuna

Trotamundos Eta Malas Compañías konpainiarekin.
Olaiturrin, 17:30ean.

BERGARA Las Fellinirekin drag festa

Kartzela zaharraren 23. urteurrenaren harira.
Kartzela zaharrean, 23:55ean.

DOMEKA 11**OÑATI Corpus Eguna, bandaren kontzertua eta dantzak**

Prozesioan, bandaren kontzertua eta dantzak.
Oñatin.

ARRASATE Ibilgailu klasikoaren topaketa

Arruenan egongo dira ikusgai, Goiena Classic Club elkarteak antolatuta.
Arruena parkean, 09:30ean.

BERGARA San Antonio jaiak

11:00etan, txistularien diana, 12:30ean, kontzertua; 15:00etan, bazkaria; eta 17:00etan, erlojupeko txirindulari proba.
San Antonio auzoan.

OÑATI Orientazio jolasa

Izena emateko: arantzazu@gipuzkoanatura.eus edo 943-78 28 94.
Parketxean, 11:30ean.

BERGARA Elosuko Otaba jaiak
12:00etan, meza; 12:30ean, pilota partiduak; 14:00etan, erretiratuen bazkaria; eta, 16:00etan, herri kirolak.

Elosu auzoan.

BERGARA Mahai-jokoen arratsaldea

Maijoku elkartearen eskutik.
Kartzela zaharrean, 16:30ean.

ARETXABALETA Judit Neddermann kantautorea
Debalde.
Herriko Plazan, 20:00etan.

ASTELEHENA 12

BERGARA Otaba Txiki
12:00etan, meza; 13:00etan, luntxa; 15:00etan, bazkaria; 19:00etan, poteoa; eta, 21:00etan, afaria eta erromeria.
Elosu auzoan.

BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
San Martin plazan, 12:00etan.

ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Herriko Plazan, 12:00etan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Piano kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleak.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:00etan.

ARETXABALETA 'El sexo sentido' ikus-entzunezkoa
Harro Astearen baitan.
Arkupen, 18:30ean.



JUDIT NEDDERMANN

ARETXABALETA Judit Neddermann kantautorea

Folka eta musika modernoa oinarri dituen kanten sortzailea da Kataluniako abeslaria, eta bosgarren diskoa aurkeztuko du: brasildar musikari eta iberiar folkloreari esker oneko albuma.
Etzi, domeka, Herriko Plazan, 20:00etan.

ANTZUOLA Trikiti ikasleen emanaldia

Secundino Esnaola musika eskolako entzunaldia.
Torresoroan, 19:00etan.

MARTITZENA 13

BERGARA San Antonio eguna
Meza, San Joxepe abesbatzaren emanaldia eta luntxa.
San Antonio auzoan, 11:00etan.

ELGETA Ipuin saioa
Neska-mutikoendako.
Liburutegian, 17:00etan

ARETXABALETA 'Harrotasunean tinko' azoka
Besteak beste, umeendako jolasak Loraturen eskutik.
Herriko Plazan, 17:30ean.

ARRASATE Flauta eta akordeoi kontzertua
Arrasate Musikaleko ikasleen emanaldia.
Juan Arzamendi Musika Eskolan, 18:00etan.

ARAMAIO 'Iniciación a las setas y hongos' hitzaldia
Jose David Fernandez mikologoaren hitzaldia.
Kultura etxean, 18:00etan.

ARAMAIO Javier Arrietaren margo erakusketa
Hamar olio lan ipini ditu ikusgai, hilaren 18ra arte.
Mondragon hotolean, 18:00etan.

EGUAZTENA 14

BERGARA Kafe Konpon
Etxeko tresna txikiak konpontzeko aukera.
San Joxepen, 16:00etan.

ELGETA Astro-argazkilaritzari buruzko topaketa
Ilatargi elkartearen eskutik.
Liburutegian, 16:30ean.

ZINEMA**OÑATI****KULTURA ETXEA**

Las ocho montañas
Egubakoitza (jatorrizko bertsoan): 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

GASTEIZ**FLORIDA**

20.000 especies de abejas
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.

El jardinero fiel
Martitza: 19:30.

Como Dios manda
Egubakoitza: 17:00, 20:00, 22:00.

Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 20:00, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

De humani corporis fabrica
Eguena: 19:30.

El maestro jardinero
Egubakoitzetik domekara, astelehena eta eguaztana: 17:15, 19:30.
Martitza eta eguena: 17:15.

La sirenita
Egubakoitza: 17:15, 19:15, 22:00.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15, 19:15, 22:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:15.

ARETXABALETA 'Trans izanez' hitzaldia

Harro Astearen baitan, Loratz Lotu elkartearen eskutik.
Arkupen, 18:00etan.

ARETXABALETA 'DJ Porru 3.0' ikuskizuna

7x7 Kultura Kalean ekimenaren baitan, Kiliklon taldearen eskutik.
Ilargi plazan, 19:00etan.

ARRASATE Krisi ekosozialari buruzko hitzaldia

Jauzi Ekosoziala mugimenduko kide Alaitz Ajuriagerrak egingo du berba.
Iratin, 19:00etan.

ESKORIATZA Aste Zapatista

17:00etan, paseoa Jose Aranako egoiliarrekin, eta 18:00etan, haurrendako gozo-eltzeak eta Nai malabaristaren ikuskizuna.
Fernando Eskoriatza plazan.

BERGARA 'O trio en mi bemo!' pelikula

Zineklubean, jatorrizko bertsoan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

Rebel

Egubakoitzetik domekara: 21:30.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00.

Spiderman

Egubakoitza: 17:00, 19:40, 22:15.
Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00, 19:40, 22:15.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00.

Mi hermano pequeño
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 19:15.

Astelehena, martitza eta eguena: 17:30.
Eguaztana: 20:00.

Padre y soldado
Egubakoitzetik domekara: 19:15, 21:45.
Astelehena, eguaztana eta eguena: 19:45.

EGUENA 15

ARRASATE Sasoibide
Ikasturte amaierako irteera egingo dute. Leku mugatuak.
Biteri plazan, 10:00etan.

ESKORIATZA Aste Zapatista
12:00etan, *Beste mundu bat posible delako* hitzaldia Luis Ezeizan; 17:00etan, mural parte-hartzailea; eta 20:00etan, *40 urte eta aldapan behera niek* bakarriketa saioa.
Eskoriatzan.

OÑATI Bingo-joko berezia eta dantzaldia

Erretiratuen Astearen baitan.
Opariak egongo dira bingo-jokoan.
Pake Lekun, 17:00etan.

BERGARA 'Su festak. Euskal musika jaialdiak XXI. mendean' liburuaren aurkezpena

Jon Urzelai egilea egongo da ekitaldian, Michele Angiolillo liburutegiak gonbidatuta. Ostean, kultur eragile eta kultur aktibista ezberdinekin mahai-ingurua egingo dute.
Kartzela zaharrean, 18:30ean.

ARRASATE Kantu emanaldia
Arrasate Musikaleko ikasleekin.
Juan Arzamendi Musika Etxean, 18:30ean.

ARETXABALETA Triki-poteoa
Harro Astearen baitan.
Portasol auzoan, 19:00etan.

ANTZUOLA Arrolaren urteko batzarra
Bazkideak daude gonbidatuta. Aurtengorako dituzten proposamenen berri emango dute.
Olaran etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA Euspot: sari banaketa ekitaldia
Euskaraz sortutako lan onenak sarituko dituzte.
Arkupen, 19:00etan.

BERGARA Musika eta dantza z beteriko gaua
Musika eskolako ikasleen eskutik.
Euria egiten badu Seminarixoan izango da emanaldia.
San Martin plazan, 19:30ean.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Zer da zilegi?

Maiatzaren 28ko hauteskundeek utzi duten argazkiak alderdien arteko akordioak eskatzen ditu gobernuak sortzeko. EAJ-PSE-EEk itxi dute euskal erakundeei egonkortasuna emateko akordioa, zilegizko akordioa, eta ez dago hirugarren bat akordio horretan, nahiz eta Otegi mila aldiz bota ayusotarrekin egingo dutela akordioa. Gipuzkoako Batzar Nagusietan EAJk eta PSE-EEk 24 batzarkide, eta EH Bilduk eta Elkarrekin koalizioak akordioa iritsiko balira beste 24 batzarkide lituzkete. Esan beharra dago EAJ-PSE-EEren baturak besteak baino 15.000 boto gehiago dituela. Halere, Otegi zilegitasuna kentzen dio EAJk bere hautagaia aurkezteari, EH Bildu izan delako lehen indarra.

Baina Iruñean zer da zilegi ezker abertzalearentzat? Lehen indarra UPN izan da, bigarrena EH Bildu eta ondoren PSN eta Geroa Bai -EAJ koalizio horretan dago-. Hemen, ordea, zilegi da Joseba Asiron alkatetzara aurkeztea. EAJk argi du Asironen alde egingo duela, eta biak dira balekoak, bai Eider Mendoza aurkeztea eta bai Asiron aurkeztea ere.

Gehiengorik ez dagoenean botorik gehien batzeko akordioak behar dira. Otegiarentzat, berriz, bakoitzari komeni zaionean komeni zaiona egitea al da zilegi?

BUKATZEKO

Inolako misteriorik gabeko platera

"Amaren betiko errezeta" jarraituz, Aretxabaletako Iosu harategiak irabazi du Arrasaten jokaturako I. Gipuzkoako Tripaki Txapelketa. "Mimoarekin eta etxeko txahalarekin" eginiko tripakiak izan dira irabazle

Miren Arana Pagaldai ARETXABALETA

Joan den asteburuan, ekainaren 3an, lehenengoz jokatu zen Gipuzkoako Tripaki Txapelketa, Arrasateko Seber Altube plazan. 26 harategik hartu zuten parte eta debagoiendarren artean banatu ziren sariak: lehenengo saria Aretxabaletan gelditu zen, Iosu harategian, hain zuzen; bigarren saria Bergarako Antiak eskuratu zuen; eta hirugarren postuan Arrasateko Otamendi harategia gelditu zen.

24. Harreman Egunaz baliatu ziren tripaki lehiaketa egiteko, eta Arrasateko Udala, Ibai-arte, Ederto Gipuzkoako Harakinen Elkartea eta Dendartean merkatarik elkartea aritu ziren antolatzaile lanetan. "Iosu harategia Ederto Harakinen Elkartearen kide da eta txapelketara parte hartzeko gonbita egin ziguten; baldintza errazak zirenez parte hartzea erabaki genuen eta, pozik gaude orain", dio Xabi Gaztañagak, Iosu harategikoak.

Familia lanak

Iosu harategiko bazkide dira Jabi eta Juan Gaztañaga anaiak, eta euren seme-alabekin batera aritzen dira lanean; hala, "guztien platerak" irabazi zuela ai-



Iosu harategiko Xabi eta Juan Gaztañaga. MIREN ARANA

tortu du Xabi Gaztañagak, eta, beste harategietan nola egiten dituzten ez jakin arren, eurenak gustuko dituztela azaldu du: "Amaren errezeta jarraituz prestatzen ditugu tripakiak, eta guretzat onak daude egiten ditugun moduan; besteak, berriz, ez dakigu nola prestatzen dituzten".

Errezetaren sekretua

Inolako "misteriorik" ez duen platera da Iosu harategikoentzat; Gaztañagaren hitzetan, "mimoarekin" egin behar dira tripakiak, euren egin zituzten bezala. Edozelan ere, baditu sekretu txiki batzuk errezetak: "Mimoarekin egin genituen; etxeko txahalaren tripakiak ziren, eta uste dugu hori garrantzitsua dela. Hori, eta bizkaitar saltsa ona egitea; amaren errezetak dio tomate bano piper txorizero gehiago izan behar duela saltsak".

Txapelaren prestigioa

Aste behin egiten dituzte tripakiak Aretxabaletako harategian, eta aste osorako kontserbatzen dituzte. Gipuzkoako Txapelketari esker harategira jende asko joan dela aitortu du Xabi Gaztañagak; haren hitzetan, "prestigioa-edo" ematen dio halako sari batek enpresari: "Txapela edo sari bat izateak jendea erakartzen du; aste honetan jende askok erosi dizkigu tripakiak".

Mota horretako lehiaketak "lagungarriak" dira izena zabalteko. "Sare sozialetan azkar zabaldu zen berria, eta telebistan eta egunkarietan ere agertu da; horrek Iosu harategia jendearen ahotan izatea ekarri du", dio Gaztañagak.

CORPUSAK

'HEMEN DEBAGOIENA' SAIOAN

EKAINAREN 12AN, ASTELEHENA, 18:00/20:00 ETA 22:00
OÑATIKO CORPUSEN GAINEKO ERREPORTAJE ZABALA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

